

Garapenerako lankidetzan klima-aldaketa

lantzeko
proposamenak



Aitana Uria

UNESCO Etxea, koordinatzailea

Monika Hernando

UNESCO Etxea, koordinatzailea

Florent Marcellesi

Bakeaz

Irantzu Varela

UNA Gestión & Comunicación

Gida hau UNESCO Etxeak sustatu eta koordinatu du, eta **BAKEAZ** eta **UNA Gestión & Comunicación**ekin lankidetzan idatzi da.

Klima-aldaketari eta garapenerako lankidetzari buruzko lan- eta gogoeta-taldeetan hartu dute parte garapenerako GKEek, ekologistek eta erakunde publikoek, bai eta pertsona hauek ere:

Puri Pérez (Mugarik Gabe), Xabier Orueta (Mundu Bat), Jaime Bernar (Zabalketa), Mikel Barba (Bakea eta Duintasuna), Asier Arcos eta Laura Modonato (Nazioarteko Elkartasuna), Luis Royero, Mikel Arakistain eta Erika Ruiz (Manuel Iradier Elkartea Afrikarista), Iñaki Barcena (UPV-EHU, Ekologistak Martxan), Miren Saiz eta Ane Garay (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), Elo Mayo eta Josu Oskoz (Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza / Arabako Foru Aldundia), Carlos Abad López (Nekazaritza Zuzendaritza/ Arabako Foru Aldundia), Silvia de Gregorio (Euskadiko GGKEen Koordinakundea), Igone Palacios (Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra, UPV-EHU), Vanesa Calero eta Antonio Sanda (Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza), Sandra Delgado eta Myriam Artola (ALBOAN), Isabel González Rojo (UNESCO Etxea), Alazne Camiña eta Pilar Dosal (Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza/ Bizkaiko Foru Aldundia), Pascaline Abo (Vie Pour Tous, Bizitza Denontzat, Benin), Robert Rueda Villarroel (Instituto de Capacitación del Oriente – ICO, Bolivia), Jesús Moraza Ruiz de Azúa (Labreako Prelatutza, Brasil).

Gida honetan adierazitako iritziak ez datoz nahitaez bat berau egiten parte hartu duten pertsonen eta erakundeen iritziekin.

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzari esker egin ahal izan da gida hau.



Itzulpenean laguntzaile izan da:



Aurkezpena



UNESCO Etxean ingurumenaren faktorea integratzeko konpromiso argia daukagu giza garapenari eta iraunkortasunari ezinbesteko elementu gisa bezala. Zehazki, klima-aldaketaren aurka egiteko konpromiso argia dugu, izan ere, giza garapena mehatxatzen duen elementua dela uste dugu, ezberdintasunak eta pobrezia eragin eta larriagotu ditzakeena.

Illo horretatik, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek klima-aldaketaren aurka duten eta izan dezaketen funtsezko zereginaz jabetuta, proiektu bat abiarazi genuen, eta dokumentu honetan islatzen dira bertan ateratako ondorioak. Proiektuaren helburua da arlo horretan lanildo berriak bilatu eta aztertzea, hastapenetik aintzat hartuz eztabaida, zalantza eta garapenerako jardun eta abagune positibo berrien bilaketa.

Hasieratik izan genuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritzaren babesari; izan ere, proposamenean sinetsi zuen eta hura gauzatzeko gurekin konfiantza zuela azaldu zuen. Proiektuko fase guztietan izan genuen haren laguntza. Horrela, laguntza ekonomikoa emateaz gain, taldeko hainbat kide pertsonalki inplikatu ziren proiektuan.

Era berean, hasieratik hainbat GKEk parte hartu zuten proiektu pilotu ezberdinetan. Proiektu pilotu horietan ebaluatzen zen GKE horien proiektuetako zenbait barnera ote zitezkeen Karbonoaren Borondatezko Merkatuan. Ekimen berritzailea dela jakinik, egokitzat jo genuen lantalde paralelo bat finkatzea. Bertan, GKE horiez gain, proiektu pilotuetan parte hartzeko asmorik gabe, mekanismoaren azterketa teorikoari

dagokionez ekarpena egin zezakeen edozein erakundek parte har zezakeen, interesa izan zezaketen ingurumen eta kooperazio arloko administrazioekin batera. Modu horretan, lehenik eta behin, Karbonoaren Borondatezko Merkatua aztertu eta neurtu zuen lantaldea eratu zen. Ondoren, epe luzera begirako estrategia bat ezarri zen, klima-aldaketa garapenerako lankidetzan txertatzeko. Lehen eginkizun hori 3. kapituluan jasotzen da, eta bigarrena 5. kapituluan.

Prozesu osoan zehar, genero-ezberdintasunak eta emakumeei boterea emateko ekimenak erronka sozial eta ingurumeneko erronka handitan txertatu behar zirela sinetsita, proiektuan generoaren ikuspegia barneratzea erabaki genuen hastapenetik. Horren ondorioz, 4. kapituluan jasotzen den esparru teorikoaren azterketaz gain, gainerako kapituluetan zeharka jasotzen diren gomendioak eta proposamenak egin ziren.

Espero dugu lan hori baliagarria izatea garapenerako lankidetzan nahiz ingurumenaren zaintzan lan egiten dugun erakunde, instituzio eta pertsonentzat, aipaturiko tresna (karbonoaren borondatezko merkatua) erabiltzeko gida modura. Halaber, espero dugu, garapenerako lankidetzari baliagarri izatea klima-aldaketaren aurka egiteko tresna izan dadin, klima-aldaketa garapenerako lankidetzarako tresnetan eraginkortasunez txertatzeko, eta emakumeei boterea eman eta zentroan bizitzaren iraunkortasuna abiarazteko asmoa susta dadin.

Azkenik, UNESCO Etxeak eskerrak eman nahi dizkie, erakunde eta instituzio ezberdinen bidez, proiektuan beren ideia, denbora eta ezagutza eman duten pertsona guztiei. Haietako gabe ezinezkoa izango litzateke.

Aurkibidea

00 Aurkezpena

03

01 Esparru orokorra: klima-aldaketari eta nazioarteko lankidetzari buruzko politikak eta jarduerak mundu mailan

05

02 Euskal lankidetzaren eta ingurumeneko eta klima-aldaketako irizpideen integrazioa

14

03 Borondatezko karbono-merkatuen azterketa eta kontrastea

22

04 Genero-berdintasuna, ezinbestekoa iraunkortasunerako

30

05 Klima-aldaketa lankidetzan txertatzea

39



01

Esparru orokorra:
klima-aldaketari eta nazioarteko
lankidetzari buruzko politikak
eta jarduerak mundu mailan



Modu progresiboan eta azken 40 urteotan, ingurumena, klima-aldaketaren aurkako borroka eta nazioarteko lankidetzaren elkarri gero eta lotuago daude, eta halaxe agertzen dira agenda politiko, sozial eta instituzionaletan.

Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Biltzarren Adierazpena (Stockholm, 1972) hasierako abiapuntua izan zen ingurumenari buruzko nazioarteko biltzarrentzat, eta nazioarteko lehen dokumentua izan zen lotura hau aipatzen:

- Ingurumenaren eta nazioarteko lankidetzaren artekoa. Hitzaurrearen 7. puntuan, herrialde sinatzaileek honako hau adierazten dute: «[...] nazioarteko lankidetzari dei egitea baliabideak bil ditzaten, garapen bidean dauden herrialdeei arlo horretan duten zereginen laguntzeko» (Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Biltzarra, 1972).
- Giza jardueren eta klimaren artekoa. Gobernuak gomendatzen zaie «kontuan har ditzaten klimari eragin ahal dioten jarduerak» (70. gomendia).

Berotze globalaz gero eta kezka handiagoa egotetik jaio zen lehenbiziko Klimari buruzko Nazioarteko Biltzarra (1979ko otsaila, Geneva). Biltzar horrek ondorioztatu zuenez, gizakiak eragindako karbono-dioxidoaren isurpenek eragina izan dezakete kliman, epe luzera. Hurrengo urtean finkatu zen Klimari buruzko Munduko Programa (KMP), eta erreferentziazkoa da nazioarteko ikerketa-lankidetzarako, bai eta klimaren arazo nagusiak identifikatzeko plataforma ere.¹

Era berean, Brundtland txostenak (CMMAD, 1988)² dioenez, klima-aldaketa da gizadiak

etorkizunean izango duen problema larrienetako bat, eta nazioarteko lankidetzaren aipatzen du –batik bat Estatuengandik eta nazioarteko erakundeengandik– helburu nagusi moduan (1983an planteatu zuen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Batzordeak). Nolanahi ere, urrunago ere badoa, eta gobernu kanpoko erakundeentzako zuzeneko laguntza areagotzea gomendatzen du, gai direlako, proiektu komunitarioen bidez, oinarritzko zerbitzuak emateko eta pobreeganaino iristeko (66. puntua).

1990ean sortu zen Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea (aurrerantzean, IPCC), 2007an Bakearen Nobel saria jaso zuena; hari esker, nazioarteko lankidetzaren zientifikoak aurrerapauso handia eman zuen. Era berean, IPCCren txostenak (ikus, eranskinean, klima-aldaketari buruzko kronologia) erabakigarriak izan dira kontzientzia sortzeko giza jardueraren eta klima-aldaketaren arteko harremanez, eta mundu mailako elkarlanaren beharraz.

Lan horien guztien emaitza moduan, 1992ko Rioko Goi Bileraren inguruan sinatu zen Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzio Esparrua (UNFCCC; Nazio Batuek, 1992). Klima-aldaketaren aurkako borrokan funtsezkoa den konbentzio horrek helburu nagusi bat du: «atmosfera berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak egonkortzea, gizakiak eragindako interferentzia arriskutsurik egon ez dadin klimasisteman» (1. artikulua).

Hori lortu ahal izateko, «klima-aldaketak mundu osoari eragiten dionez, herrialde guztien arteko lankidetzak ahalik eta zabalena izan behar du, nazioartearen erantzuna eraginkorra eta egokia

¹ KMPk helburu hauek ditu: ekonomiaren eta gizartearen plangintza hobetzea; ikerketaren bidez klimaren prozesuak ulertzen laguntzea; gizakiak bertan duen eragina zehaztea, eta gobernuak ematea berehalako klima-aldaketan berri, berezkoak edo gizakiak eragindakoak, funtsezko giza jarduerari eragin ahal dietenak.

² CMMAD (INGURUMENARI ETA GARAPENARI BURUZKO MUNDU-BATZORDEA) (1988): Nuestro futuro común (Brundtland Txostena), Madril, Alianza Editorial.

izan dadin, kontuan hartuz, batetik, guztion erantzukizunak eta, bestetik, herrialde bakoitzaren erantzukizunak, ahalmenak eta baldintza sozialak eta ekonomikoak». Estatuen eta gobernuen arteko erakundeen nazioarteko lankidetzari hori zientifikoa nahiz teknikoak izan daiteke, hau da, garapen-proiektuak, ikerketa zientifikoa, finantza-baliabideen banaketa, nazio-erakundeak indartzea eta adituak trukitzea. Helburu zehatz hauek ditu:

- Gizakiak eragindako berotegi-efektuko gasen isurpenak murriztea.
- Berotegi-efektuko gasen hobi eta gordailu guztiak mantentzea eta sendotzea.
- Klima-aldaketaren inpaktuetara moldatzeko prestaketak.
- Klima-sistemari buruzko datu-baseak ezartzea eta sistematikoki behatzea.
- Herritarrak klima-aldaketaren inguruan heztea, trebatzea eta sentsibilizatzea.

Brundtland txostenaren ildotik, Konbentzioak gobernu kanpoko sektorearen lankidetzari ere aipatzen du:

- Klima-aldaketaren aurkako borroka horretan, herrialde sinatzaileek ahalik eta parte-hartzerik zabalena sustatu behar dute, besteak beste gobernu kanpoko erakundeena (4.1.i. artikulua).
- Parteen Biltzarrak³ «eskatuko du, hala dagokionean, nazioarteko erakundeen, eta gobernu arteko eta gobernu kanpoko organo eskudunen zerbitzuak eta lankidetzari, eta horiek emandako informazioa erabiliko du» (7. artikulua).

Kiotoko Protokoloa 1997ko abenduaren 11n onartu zen eta 2005eko otsailaren 16an sartu zen indarrean, Errusiaren sinadurarekin batera.

1992ko Konbentzioa sakondu eta aurrerapauso bat gehiago ematen du: herrialde garatuentzako murrizketa-helburu bat finkatzea, 2012rako. Izan ere, 1992ko Konbentzioak ez du zehazten zenbatekoak izan behar duten kontzentrazio-mailek, ez eta zer epetan iritsi behar diren ere. Kiotoko Protokoloa izeneko tresna legalak lehenbiziko aldiz ezartzen du berotegi-efektuko gasen isurpenak murrizteko konpromiso zehatza, herrialde garatu nagusientzat eta trantsizio-ekonomientzat: mundu mailako % 8ko murrizketa (1990en aldean), % 5eko murrizketa Europa mailan eta gehienez % 15eko gorakada Espainiarentzat (ikusitako taula 12. orrialdean, BEGak murrizteko helburuak munduan, European eta Espainian).

Nazioarteko lankidetzaren mailan, Kiotoko Protokoloak «malgutasun-mekanismoak» sartzen ditu, hiru tresna hauen bidez: Isurpen Eskubi-deen Merkatua (IEM), Aplikazio Bateratuko Mekanismoa (ABM) eta Garapen Garbirako Mekanismoa (GGM) (17., 6. eta 12. artikulua). GGMei eta ABMei «proiektuetan oinarritutako mekanismoak» esaten zaie, isurpenak murrizteko unitateak proiektuetan inbertituz ateratzen direlako. Proiektu horien helburua da iturrien isurpenak murriztea edo hobien xurgatzeko ahalmena handitzea. Hain zuzen ere, GGMek Ipar-Hego lankidetzari berri baten oinarriak eta irizpideak finkatzen dituzte, betiere klima-aldaketaren inguruan. Hortik sortu dira Borondatezko Karbono Merkatuak ere, Kiotoko Protokoloak behartzen ez dituen entitateek beren isurpenak konpentsatu ahal izan ditzaten, isurpenak murrizten edo xurgatzen dituzten proiektuen bidez.

³ Parteen Biltzarra (COP) da Konbentzioaren organo gorena. Erregularitasunez aztertzen du Konbentzioaren aplikazioa, bai eta Parteen Biltzarrak onartutako edozein tresna juridiko ere eta, agindutakoa betez, Konbentzioa behar bezala aplikatu ahal izateko erabakiak hartzen ditu.

Garapen Garbirako Mekanismoak

Kiotoko Protokoloaren 12. artikuluan definitutako Garapen Garbirako Mekanismoek hiru helburu dituzte:

- Herrialde garatuei laguntzea BEG isurpenak murrizteko konpromisoak betetzen.
- Garapen bidean dauden herrialdeei laguntzea garapen iraunkorra lortzen.
- UNFCCCren helburu nagusia betetzen laguntzea, hau da, atmosferan dauden berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak egonkortzea.

Garapen Garbirako Mekanismoa garapen bidean dauden herrialdeetan proiektuak egitea da, eta isurpen gehiago aurrezteko teknologia konbentzionala erabilia baino, edo basoen xurgatze-ahalmena sustatu ez balitz baino. Organo eskudun batek ziurtatu behar du isurpenak aurrezte hori. Isurpenen Murrizketa Ziurtatuak (IMZ) merkaturatu egin daitezke, bai eta herrialde garatuetako edo trantsizio-ekonomietako entitate publikoek edo pribatuek eskuratu ere, Kiotoko Protokoloaren murrizte-konpromisoak betetzeko. Mekanismo horrek teknologia eta finantzaketa publikoa eta pribatua transferitu behar du Hegoko herrialdeetara.

Kiotoren arabera, GGMAk borondatezkoak izango dira eta proiektuek benetako onurak emango dituzte, neurgarriak eta epe luzerakoak, betiere klima-aldaketari aurre egitearen inguruan. Gerora idatzitako dokumentuek irizpideak osatu dituzte:


- Proiektu bat finantzatzen bada Iparreko herrialde batetik datozen baliabide publikoekin, adierazi beharra dago finantzaketa hori ez dela garapenerako laguntza ofizialeko kapituluaren desbideratze bat.
- Proiektuek ez dute energia nuklearrik erabiltzen.
- Proiektuek bidezkotasanaren printzipioari jarraitzen diote, garapen bidean dauden eta garatuta dauden herrialdeetako bizilagunen arteko desberdintasunak murrizteko.
- Proiektuek ezin dute inpaktu kaltegarriak eragin ingurumenaren gainean.
- Basotze- eta basoberritze-proiektuak onartuak izateko, herrialdearen oinarri-urteko isurpenen % 1 izango da muga (I. Eranskina⁴).

Bi motatako kritikak egin ohi zaizkie GGMei:

Printzipioak direla eta:

- GGMEk, gainerako malgutasun-mekanismoen antzera, merkatu-mekanismoak aplikatzen dizkiete problema ekologikoei, berotegi-efektuko gasak eta klima merkantzia arrunt bihurtzen dituzte, eta espekulazioen mende badaude finantza-merkatuetan.
- Ez dio heltzen problemaren erroari: klima-aldaketaren eragile nagusi diren Iparreko enpresek eta herrialdeek isurpenak murriztu ordez konpentsatzea, hau da, agian etorkizunean Hegoko isurpenak murriztearen alde apustu egitea, baina, bitartean, lehengo

⁴ Kiotoko Protokoloak era honetan banatzen ditu herrialdeak: I. Eranskinekoak (herrialde industrializatuak, BEGak murrizteko helburu zehatzak dituztenak) eta II. Eranskinekoak ez direnak (garapen bidean dauden herrialdeak, murrizketa-helbururik gabekoak)



produzio- eta kontsumo-bide kutsatzaile be-
rekin jarraitzea Iparrean. Konpentsazio horiek,
baina, Iparreko herrialdeen BEG murrizketa
gisa konputatzen dira Iparreko herrialdeen
balantzan.

Maila praktikoan:

- Onuradun nagusiak suspertzen ari diren
ekonomiak dira (horien buruan, Txina,
India eta Brasil), inbertsioetarako baldintza
hobeak eta enpresa multinazional handiak
eskaintzen baitituzte.
- Oso zaila da proiektuen gehigarritasuna
kontrolatzea⁵ eta, gainera, balidazio-proiek-
tu burokratikoa neketsua da, luze jotzen du,
eta gardentasunik eta eraginkortasunik eza

ere agertzen da.

- Proiektuak ingurumen- eta gizarte-irizpi-
deen arabera hautatzeko orduan ez dago
bermerik, eta gertatu izan da ekosistemen-
tzat oso kaltegarriak diren proiektu handiak
onartzea (adibidez, eztabaida handia dago
zentral hidroelektrikoak GGMetan sartzeari
buruz).

**Iturria: Geuk egina, oinarritzat hartuta Kio-
toko Protokoloa, 'Kioto Protokoloaren proiektu-
tuetan oinarritutako mekanismoak erabiltze-
ko Espainiako gida' eta lan-taldeak**

⁵ Gehigarritasunak ziurtatu nahi du proiektua ez zela egingo karbono-kredituak saldu ez balira, eta proiektuak bestela baino isurpen gutxiago sortzen duela.

Legearren garapen horietan oinarriturik, garapenerako lankidetzarako nazioarteko erakunde eta agentzia gehienek klima-aldaketa murrizteari eta hartara moldatzeari buruzko politikak landu dituzte.

2000ko irailean, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak Milurteko Adierazpena onartu zuen, mugari izan dena pobreziaaren aurkako borrokan. Adierazpen horren IV idatz-zatian, «Denon ingurunea babes-tea» izenekoan esaten denez, ahalegin guztiak egingo dira Kiotoko Protokoloa indarrean sar dadin, ahal bada Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren hamargarren urteurrena baino lehen» (2002an izan zen, Johannesburgen), eta «berotegi-efektuko gasen isurpenak murrizten hasteko». Giza garapenari buruzko bere txostenean, 'Milurteko Garapen Helburuak: nazioen arteko hitzarmena, pobrezia deuseztatze-ko' (2003) izenekoan, Nazio Batuen Garapen Programak (UNDP) Adierazpen hori sakondu eta Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldearen (IPCC) 2001eko txostenean oinarritzen da, klima-aldaketak Hegoko herririk eta eskualderik behartsuenetan dituen efektuez sentsibilizatzeko. Halaber, klima-aldaketari «garapenareko funtsezko problema» irizten dio, eta Kiotoko Protokoloaren Garapen Garbirako Mekanismoak aipatzen ditu, karbono-isurpenak murrizteko. Era berean, arreta gehiago eskatzen du klima-aldaketaren aurkako borrokaren gastuak minimizatzeko, energetikoki garbiak diren teknologiak eta karbonoa jasotzeko seguruak eta ekonomikoak diren teknologiak garatzeko, eta energia-eraginkortasuna areagotzeko.

Klimarekin duen konpromisoa azpimarratze aldera, UNDPk oso-osorik berotze globalari eskaintzen dio 2007/2008ko giza garapenari buruzko txostena. 'Klima-aldaketari aurre egiten: gizakion arteko elkartasuna mundu zatiitu honetan'⁶ izeneko

txostenaren mezua argia eta gardena da: berotze globalaren erronka gainditu ezinak geldiarazi eta ondoren atzera eginaraziko die pobrezia murrizteko nazioarteko ekimenei. Eszenatoki horri tinkotasunez aurre egin ahal izateko, UNDPk funtsezko lau gomendio egiten ditu:

1. Esparru aldeaniztun bat garatzea, klima-aldaketa arriskutsuari aurre egiteko Kioto 2012ren ondorengo testuinguruan.
2. Karbono-aurrekontu iraunkorrak finkatzeko politikak onartzea: gutxitze-programa.
3. Nazioarteko lankidetzaren esparrua indartzea.
4. Klima-aldaketarako moldaketa erdi-erdian txertatzea Kioto 2012ren ondorengo esparruan, bai eta pobrezia murrizteko nazioarteko itunen esparruan ere.

Hirugarren gomendioan, GGMak eta Kiotoko beste mekanismo batzuk aipatzeaz gain, UNDPk proposatzen du karbono-isurpenen kredituek sortutako finantzaketa zabaltzea industria-sektoreko murrizketaz haratago, hain zuzen ere pobreentzat mesedegarriak diren lurzorua erabiltzeko programetara, hala nola basoak zaintzera eta belardiak beren oneratzera.

2010eko ebazpen berri batean⁷, Cancungo gailurra baino lehenxeagokoa (COP16), Nazio Batuen Biltzar Nagusiak azken hamarkadako bere ikuspuntua berretsi eta honela planteatu zuen:

- Klima-aldaketa arrisku eta erronka larria da herrialde guztientzat, batik bat garapen bidean daudenentzat.
- Konpromisoa hartzen du (berriro) klima-aldaketari aurre egiteko, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzio Esparruaren oinarriak eta xedapenak betez.

⁶ Giza garapenari buruzko txostenak, NBGP 2007. <http://hdr.undp.org/en/reports/ebooks/>. Euskarazko laburpena, hemen: [http://www.unesco-
etxea.org/dokumentuak/IDH2007_Laburpena.pdf](http://www.unesco-etxea.org/dokumentuak/IDH2007_Laburpena.pdf)

⁷ Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren Ebazpena, 65/1, 2010eko urriaren 19koa: 'Promesa bete: Milurteko Garapen Helburuak betetzeko bat eginik'



- Gogorazten du klima-aldaketari aurre egitea funtsezkoa izango dela Milurteko Garapen Helburuak lortzeko aurrerapenak zaindu eta sustatu ahal izateko.

Aipagarria da Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen lana ere (ELGA). 2006an argitaratu zuen «Klima Aldaketarako Moldaketa Garapenerako Lankidetzaren Txertatzeari buruzko Adierazpena»⁸. Bertan esaten denez, herrialde kideek lan egin behar dute klima-aldaketarako moldaketa txertatu ahal izateko garapeneraren plangintzan, bai etxeko

jardueretan bai herrialde kideekin egindako ekimenetan. Horretan sakontzen du moldaketa hori garapenerako lankidetzaren txertatzeko gida batek⁹, hobeto ulertu ahal izateko klima-aldaketak garapeneraren aldeko lanean dituen eraginak (lankidetzaren-erakundeetan eta herrialde kideetan), ikuspuntutik egokienak identifikatu ondoren klima-aldaketarako moldaketa txertatu ahal izateko nazio-, sektore- eta proiektu-mailako garapen-politiketan, hiri- nahiz landa- eremuetan, eta modalitate praktikoak zehaztu ondoren, herrialde kideei lagundu ahal izateko klima-aldaketaren arazoei aurre egiten.

⁸ Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) herrialde kideetako Garapen eta Ingurumen ministroek onartua, 2006ko apirilaren 4an.

⁹ ELGA (2010): Integración de la Adaptación en la Cooperación para el Desarrollo: Guía sobre Políticas, ELGA.

BAZENEKIEN zein diren berotegi-efektuko gasen isurpenak murrizteko helburuak, kontuan hartuz...

... Kiotoko Protokoloa?

- **Mundu osoan:** a) 1990en aldean, % 5,2 murriztea 2008-2012rako; b) % 25-40ko murrizketa herrialde industrializatuetan, hots, batez besteko tenperatura 2 gradu baino gutxiago igotzea, industriaurreko mailaren aldean (Cancun, 2010).

Berria: UNDPk, 2050erako, % 50eko murrizketak proposatzen ditu mundu osoan, eta % 80koak herrialde garatuetan (akordio gehigarria); % 20 eta % 30 arteko murrizketak, hemendik 2020ra. Garapen bidean dauden herrialderik isurleenek 2020an isurpen maximo iritsi beharko lukete, eta % 20 murriztu, 2050 baino lehen.)

- **Europar:** 2012an % 8ko murrizketa eta 2020an % 20koa, 1990en aldean.
- **Espaniar:** 2012an % 15eko gorakada, 1990en aldean ¹⁰.

... gizarte-mugimenduak?

- **Mundu osoan:** Iparreko herrialdeek % 50eko murrizketa 2017an, 1990en aldean, karbono-merkatuak sartu gabe (Herrien 2010eko Akordioa, Cochabamba).
- **Europar:** berotegi-efektuko gasak % 30 murriztea 2020an (Greenpeace eta WWF).
- **Espaniar:** berotegi-efektuko gasak % 40-45 murriztea 2020an (Ekologistak Martxan, Lurra-ren Lagunak).

Helburu horiei lotutako finantza-konpromisoak

2010-2012: herrialde industrializatuek 30.000 milioi dolarreko funtsa, garapen bidean dauden herrialdeetan klima-aldaketari aurre egiteko.

Epe luzera: Urtean 100.000 milioi dolarreko Funts Berdea 2020an, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzio Esparruaren agintepean, Munduko Bankuarekin koordinaturik.

Urteroko finantzaketa berri baten eskaera, Garapenerako Laguntza Ofizialaz gainekoa eta iturri publikokoa, Iparreko herrialdeen BPGaren gutxienez % 6koa, Hegoko herrialdeetako klima-aldaketari aurre egiteko.

Iturria: Bakeaz (2011), *Guía práctica para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo*, Bakeaz, eta Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenaren aldeko Euskal Agentzia.

¹⁰ Espainiar estatuan berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen esleipen Plan Nazional bat dago, sektore ekonomiko batzuentzat. Dena dela, ez dago esleipen-planik autonomia-erkidegoetan. Adibidez, Euskadik konpromisoa hartu zuen, bere borondatez, berotegi-efektuko gasen isurpenak % 14 baino gehiago ez handitzeko 2012an, 1990en aldean.

REDD (Deforestazioaren eta Degradazioaren ondorio diren Isurpenak Murrizteko Programa)

Egindako ebaluazioen arabera, berotegi-efektuko isurpen globalen % 12 eta % 20 artean deforestaziotik eta baso-estalkia galtzetik dator eta, beraz, basoak babesteak erabateko lehenasuna du klima-aldaketaren aurkako borrokan. Testuinguru horretan, REDD mekanismoa indarra hartuz joan da. Baliko Ekintza Planaren arabera (2007), Deforestazioaren eta Degradazioaren ondorio diren Isurpenak Murrizteko Programa bat da, bai eta Hegoko herrialdeetako basoetan karbono-stocka zaintzeko, iraunkortasunez kudeatzeko eta hobetzeko ere.

Garapen Garbirako Mekanismoen antzera (GGM), oinarrian dituzte naturaren diru-balioztapena –kasu honetan, basoen eta karbono-biltegi izatearen balioztapena– eta gehigarritasuna (hau da, REDDik ezean egingo ez zen proiektu bat izatea). Aitzitik, GGMak bezalako konpontze-kostuak izan arren, aukera-kostuak kalkulatu eta metodologia honi jarraitzen dio, oro har:

- Zonalde bateko deforestazioa edo baso-degradazioa eman balitz gertatuko ziren CO₂ isurpenak kalkulatzeko dira (edo herrialde batek edo entitate batek baso tropikalak suntsitzeari uko eginda kobratuko ez duena balioesten da);
- Karbonoaren prezioan oinarrituz, diru-balio bat eman eta karbono-kreditu bat sortzen da.
- Karbono-funts baten bidez, kopuru hori ordaintzen zaio bere basoa babesten duen herrialdeari edo entitateari.

Baso tropikalak babesteak lehenasuna duen arren eta tresna berri horri buruzko perspektibarik ez egonagatik, hainbat zalantza daude:

- GGMen kasuan bezala, Iparreko herrialdeek tresna horren bidez beren egungo eta etorkizuneko isurpenak konpentsa baditzakete, adibidez beren zor ekologiko historikoaren dirua itzuli ordez, mekanismo horrek ere ez du lagunduko Iparreko egiturak

aldatzen.

- Alde anitzekoak eta publikoak diren funtsak eratu ordez karbono-merkatuen alde egiten bada REDDi bide emateko, natura merkatuan sartzen ariko gara.
- Zalantzak daude herri indigenen eskubideez, batik bat basoen eta luraren jabetzaz eta erabileraz, bai eta haien ohiturak errespetatzeaz ere, haietako asko baso horien mende baitaude beren bizirau-pen fisiologiko eta kulturalerako.
- Funts berriek nori egingo diete mesede? Gobernuari, tokiko komunitateari, herri indigenei, emakumei? Garrantzitsua da tokiko komunitateek REDDen parte hartzea, nahiz estrategiak lantzen nahiz onurak jasotzen. Ez dakigu diru-kopuru handiak iristeak zer eragin izan dezakeen aberastasuna diruan oinarritzen ez duten komunitateen gizarte-antolaketan, eta tokiko eta estatu-gobernuak usteltzeko arriskua dago.
- Badago benetako arrisku bat ere: orain arte beren basoak zaintzen ahalegindu ez diren herrialdeak saritzea –ez deforestatzeagatik ordaintzen baitzaie–, eta, aldi berean, basoen kudeaketa eraginkor bat duten herrialdeei aitortpenik ez egitea (eta, kasu horretan, diru-laguntzarik ez ematea). Kontuak kontu, mekanismo honetatik landaketa berriak baztertu eta baso primarioak lehenetsi behar dira.

REDD sustatze aldera, Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Programak (INBP), FAOrekin eta UNDPekin batera, UN-REDD programa sortu du eta Munduko Bankuak Forest Carbon Partnership Facility abiarazi du. Bestalde, klima-justiziaren alde diharduten zenbait erakunde ekologistak eta sozialek 'NO REDD' sarea sortu dute, salatu egin nahi baitute basoak eta atmosfera pribatizatzea eta merkatuan sartu izana, eta herri indigenen eskubideak urratu izana.

Iturria: Marcellesi, F. (2012): Cooperación para el posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de cooperación al desarrollo, Bakeaz.

02

Euskal lankidetzaren
eta ingurumeneko
eta klima-aldaketako
irizpideen integrazioa



Klima-aldaketa Espainiako lankidetzan...

Espainian, nazioarteko lankidetzaren arautzen du Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Legeak (GNLL, 1998). Bere lehen artikuluan, GNLLk dioenez, Espainiako lankidetzak «ingurumenaren iraunkortasuna eta berronertzea bultzatzen dituzten garapen-prozesuak sustatuko ditu», eta helmugatzat hartzen du «gizakiaren, gizartearen eta ekonomiaren garapena, munduko pobrezia ezabatzen laguntzeko» (3. art.). Horretaz gainera, GNLLk zera adierazten du: «[espainiar estatuak] errespetatu egingo ditu nazioarteko Erakundeen baitan hartutako konpromisoak», beraz klimaren inguruko hitzarmenak ere bai, nahiz eta testuan zehar ez zaien aipamenik egiten klima-aldaketari edo berotze globalari. Aldiz, Espainiako lankidetzaren ingurumen-estrategiak zehatz aipatzen du ingurumen arloko nazioarteko konpromisoak «ondare unibertsalak» direla, eta ingurumen arloko alde anitzeko hitzarmen nagusiak zerrendatzen ditu, hain zuzen ere Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbenioa (SECIPI, 2002:32).¹¹ Era berean, kezkarria da 2007ko amaieran Kongresuko indar politiko guztiek sinatutako Pobreziaren aurkako Estatu Itunak hain aipamen gutxi egitea ingurumen iraunkorrari, harreman argi eta zuzenik ez jartzea pobreziaren aurka borrokatzearen eta ingurumena babestearen artean eta, bereziki, berotze globala behin ere ez aipatzea.

Bestalde, Espainiako Lankidetzaren 2009-2012

III. Plan Zuzentzaileak, aurreko planak bezala, lehenetsuna ematen dio, besteak beste, klima-aldaketari. 2020ko egoeraren aurreikuspenean, Planak dioenez, «baztertuen interesak entzuten eta lehenesten ditu agenda honek, eta lehen lerroan dago nazioarteko agendan, non martxan jarri diren klima-aldaketaren inpaktuak murrizteko neurriak». Ikuspuntu hori aurrera eramateko, nazioartean hitzartutako ekimenekin jarraitzeaz gain –«batik bat klima-aldaketarekin aurkako borrokan»–, AECIDen ustez, ingurumen-iraunkortasuna lehenetsun horizontala eta sektoriala da, halaxe nabarmentzen baitute ingurumenaren eta garapen iraunkorraren arloko Espainiako lankidetzaren estrategia guztiek¹². Bi lehenetsun horien barruan, klima-aldaketak garrantzi berezia du; izan ere, AECIDen ustez, klima-aldaketa da ingurumen iraunkorra arriskuan jartzen duten faktore nagusietako bat, eta problema bat da garapenerako, ondoriorik kaltegarrienak herrialderik pobreenetan antzematen baitira:

- **Maila horizontalean**, ingurumen-iraunkortasuna integratzeak lehenetsuna du Espainiako Lankidetzaren ekimen guztietan. Ekimenak lehenesteko eta horien edukia eta ikuspuntua erabakitzeak orduan, arreta berezia eskainiko zaio klima-aldaketari, herrialde kideen plangintzan eta estrategietan, maila guztietan (nazionala, eskualdekoa eta tokikoa).
- **Maila sektorialean**: sustatutako ekimenen bidez lagundutako jarduerak egokiak dira klima-aldaketaren inpaktuak gutxitzeko, haietara moldatzeko eta murrizteko.

¹¹ Gainera, Garapenerako Lankidetzaren 2009-2012 III. Gida Planaren arabera, AECIDek konpromisoa hartu du alde anitzeko esparru eraginkor bat garatzeko eta herrialde kideei laguntzeko klima-aldaketaren eraginak gutxitzen eta haietara moldatzen. Nazioarteko foroetan ere ikusten da garapen bidean dauden herrialdeetako gobernuek nazio-estrategiak landu behar dituztela ondare naturala iraunkortasunez kudeatzeko, bai eta klima-aldaketaren eragina gutxitzeko eta hartara moldatzeko ere, eskualdeko eta komunitateetako eragileekin elkarrizketak eginez.

¹² NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO ETA IBEROAMERIKARAKO ESTATU-IDAZKARITZA (2002): Estrategia de la cooperación española en medio ambiente 2001-2004, Madril, Kanpo Arazoetako Ministerioa. NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO ESTATU-IDAZKARITZA (2009): Estrategia de Medio Ambiente y Desarrollo Sostenible de la Cooperación Española, Madril, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa.

Klima-aldaketaren arloko estrategia sektoriala definitze aldera, AECIDen Plan Zuzentzailea oinarritzen da UNDPren Giza Garapenari buruzko 2007-2008 Txostenean (oso-osorik klima-aldaketari buruzkoa), eta Baliko Ekintza Planaren jardueralerroetan: moldaketa, teknologia, finantzaketa eta basoberritzea. 'Ingurumen-iraunkortasuna, klima-aldaketaren aurkako borroka eta habitata' izeneko lehen tasun sektorialaren baitan, Berriratzeko 1. Helburua zehazten da: «Ingurumen-kudeaketarako ahalmen instituzionalak eta parte-hartzeko prozesuak indartzea, era horretan klima-aldaketaren inpaktua eta herritarren ahultasun ekologikoa murrizteko, ingurumenaren aldetik iraunkorra den giza garapen bat egon dadin». Klima-aldaketarekin lotutako lerro estrategikoak aipatuko ditugu:

- Klima-aldaketaren eta ekosistemen degradazioaren ondorioz jendeak ingurumenaren aurrean pairatzen duen ahultasuna murrizten laguntzea.
- Klima-aldaketa gutxitzen laguntzea, deforestazioaren aurkako eta energia garbien aldeko ekintzak bultzatuz.
- Klima-aldaketaren aurrean ahulenak diren zonaldeei moldatzen laguntzea baliabide osagarrien bidez, betiere bat etorritik hondamendien prebentziorako nazio- eta eskualde-planekin.
- Politika publikoak sustatzea, berotegi-efektuko gasen isurpena murriztzeko eta karbonoa are gehiago finkatzeko aprobezko txamenduak bultzatzea, batez ere basoberritzearekin lotuak.
- Ahultasun ekologikoa murrizteko prozesu parte-hartzaileak bultzatzea.

Garapen garbirako mekanismoak dagokionez, AECIDek haiek erreformatzea proposatzen du, isurpen-murrizketaren gehigarritasuna errazago ebaluatzeko, eta ziurtatu ahal izateko, era berean, GGMak eraginkorrak direla isurpenak gutxitzeko eta garapena sustatzeko.

III. Plan Zuzentzailean oinarriturik, AECIDek ingu-

rumenari eta klima-aldaketari buruzko jardueraplan sektorial bat onartu du. Agiri horretan proposatzen du Espainiako lankidetzak garapen-eredu berri bat sustatzea, naturaren mugak errespetatuz eta, aldi berean, ekonomia iraunkorretarako trantsizioa bultzatuz, eta garrantzi berezia ematea biodibertsitateari, justizia sozialari eta zuzentasunari, eta karbono-dioxidoaren isurpenak txikiak izateari. Bost lerro estrategiko ditu, horietatik hiru tematikoak, eta bertan dago klima-aldaketari buruzkoa ere. Hain zuzen ere: Klima-aldaketaren aurkako borroka, moldaketa bultzatuz (eskualdeko eta alde anitzeko sareak eta ekimenei instituzioen babesa emanez); hondamendien prebentzioa eta murrizketa azpimarratuz (urak eta basoak beren onera eramanez), eta elikadura-segurtasuna handituz (nekazaritzaren biodibertsitatea sustatuz). Bestalde, energia eskuragarriago jartze aldera, energia berriztagarriak lehenesten dira, karbono gutxiak direlako eta berotegi-efektuko gasen isurpenak gutxitzen laguntzen dutelako.

Era berean, lerro estrategiko horrek lau jardueralerro ditu. Batetik, hiru lerroren helburua da klima-aldaketara moldatzeko prozesuak bultzatzea:

1. Erakundeek indarra ematea eskualdeko eta alde anitzeko sareei eta ekimenei.
2. Nekazaritzako aniztasuna eta lurren hobekuntza sustatzea, elikadura-segurtasunaren alde.
3. Urak eta basoak beren oneratzeko eta hondamendiak aurreikusteko alerta goiztiarrekoko sistemak.

Beste lerro batek, berriz, ekonomia berderako trantsizioa bilatzen du, pobrezia nabarmen murriztuz eta karbono gutxiaren ereduak bultzatuz.

4. Energia berriztagarriak.

Espainiako ingurumen-legediari dagokionez, Marcellesi eta Palaciosen aztertua (2008), inon ez dira aipatzen nazioarteko lankidetzak eta Hegoko

herrialdeak. Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legeak (26/2007, urriaren 23koa) lankidetzaz aipatzen duenean, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaz ari da, eta Europar Batasuneko beste Estatu kide batekiko harremanaz, baldin eta ingurumen-kalte baten edo berehalako mehatxu baten arriskua badago (8. art.). Era berean, 2008ko proiektuen Ingurumen Inpaktua Ebaluatzeko Legearen testu bateginean, «mugaz haraindiko efektu» esaten zaie proiektu batek eduki ditzakeen ingurumen-ondorioei Europar Batasuneko beste Estatu kide batean, eta ez mugakide diren beste herrialdeetan edo Espainiatik urrun daudenetan.

... eta euskal lankidetzan

2007ko otsaileko Euskal Autonomia Erkidegoaren Garapenerako Lankidetzaz Legeak bere hitzaurrean dioenez, «ingurumena hondatuz doanez eta biodibertsitatea betiko suntsitzen ari denez», EAEn betebeharrak da nazioarteko lankidetzaren arloan «politika aktiboak diseinatzea», «giza garapen iraunkorraren» kontzeptuan oinarrituak. Espainiako legeak bezala, ingurumena babesteko nazioarteko akordioak betetzeko konpromisoa hartzen du, baina ez du klima-aldaketarik aipatzen araudi osoan. Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategikoa eta Zuzentzaileak (2008-2011), erreferente moduan Milurteko Garapen Helburuak dituenak (Eusko Jauriaritza, 2008a: 7), are gehiago zehazten du ingurumenaren aldeko konpromisoa: klima-aldaketak, azpimarratzen du, «garapen-agenda berri bat egiteko eta erakundeen egitura global demokratiko berri bat egiteko aukera izan behar du» (ibidem: 15). Planak badu beste oinarri bat ere, alegia, herrialde pobreekiko zor ekologikoa, eta planteatzen ditu «'prebentzio'-politikak, giza garapenaren eta ingurumenaren arteko harremana unitate bakar batean integratzen dutenak, proiektuak diseinatzean». (Ibidem: 60).

Euskal lankidetzan, iraunkortasun ekologikoa zeharlerroa da, eta txertaturik egon behar du garapenerako, ekintza humanitarioko eta garapen-hezkuntzako proiektuetan. Euskal lankidetzaz legeak lehentasun

duen arren «ingurumena babestea, zaintzea eta haren kalitatea hobetzea, bai eta biodibertsitatearen erabilera arrazionala, berriztagarria eta iraunkorra ere» (5.d), ez da lerro sektoriala (hala dira gainerako zehar-lerroak –giza eskubideak, genero-ikuspegia, tokiko prestakuntza–). Nolanahi ere, 2012-2015eko plan estrategikoa eta zuzentzailearen zirriborroan, non berriro aitortzen den klima-aldaketa dela «problema globala, herrialdeei erantzukizun partekatua eta banakakoak eskatzen dizkiena», proposatzen da iraunkortasun ekologikoa euskal lankidetzaren dimentsio sektoriala izatea (zehar-lerroa izaten jarraitzeaz gain). Bere helburu nagusia da «Ingurumenaren babesa bultzatzea, biodibertsitatea eta klima-aldaketaren aurkako borroka», eta hiru lerro estrategikoa ditu:

1. Natura-baliabideen eta ekosistemen kudeaketa iraunkorra eta parte-hartzailea sustatzea.
2. Kontsumo iraunkorra bultzatzea, lankidetzaren barruko eragileen artean.
3. Klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzea (energia-eraginkortasuna, teknologia garbieraren transferentzia, Hegoko politika publikoetan isurpen-murrizketak sartzea, sektore ahulenen gaineko inpaktuak ebaluatuz klima-aldaketara moldatzeko prozesuak).

Ingurumenari buruzko euskal legedian nazioarteko lankidetzaz modu horizontalean txertatzeari dagokionez, Marcellesi, Palaciosen aztertu bezala (2008), honako hau adieraz dezakegu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko II. Ingurumen Esparru Programa (2007-2010), 2002-2006ko lehen programak ez bezala, iraunkortasun-erantzukizuneko sei baldintza beharrezkoen artean sartzen du «nazioarte mailako ingurumen-lankidetzaz» (Eusko Jauriaritza, 2007: 62) –baina ez bost helburuen artean–. Testuinguru horretan, programaren jardueraz lerro batek –lankidetzaz eta elkartasun-loturak sendotzea gutxien garatutako herrialde eta eskualdeekin– aipamen egiten dio, zeharka eta azaleatik bada ere, garapenerako lankidetzari eta Latinoamerikako

goburnekin lankidetzaren ekimen batzuk egiten hasteari, zehaztasun gehiagorik gabe. Lehenbiziko baldintza dela eta, «ingurumenaren aldagaia beste politiketan integratzea», lau lehentasun aipatzen dira: klima-aldaketa, biodibertsitatea, hiriguneak eta kontsumo/produktzio iraunkorrak.

- Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana, 2008-2012ren (Eusko Jaurlaritza, 2008b) 88. ekintzan aipatzen da (Eusko Jaurlaritzan neurri eredugarriak sartzeari buruzko atalean), isurpenak Gerriko Berdea Mugimenduaren bidez konpentsatzeaz gain, nazioarteko lankidetzaren proiektuak egitea (klima-aldaketari lotuak), Garapenean Lankidetzaren izateko eta Laguntzeko Funtsetan bidez (GLLF).

Bestalde, Euskadin klima-aldaketaren aurka borrokatzeko lege-proiektu bat lantzen ari da. Lege-aurreproiektuaren zirriborroan oinarriturik, honako iruzkin hauek egin ditzakegu. Lehenik, oso positiboa da klima-aldaketaren ikuspegi integralaren beharra azpimarratzea eta, horren ondorioz, euskal herri-administrazio guztiei beren eskumenetan klima-aldaketa txertatzeko agintzea. Dena dela, Legeak ez du aipatzen garapenerako lankidetzaren eremua eta zer potentzial duen klima-aldaketaren aurkako borroka globalean (hala finkatzen du Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzarako estrategiak). Era berean, lankidetzaren bidez klima-aldaketa borrokatzeko tresna bat izateaz gain, lankidetzaren jarduerak (batik bat Hegoko proiektuek) haren eragina jasango dute. Adibidez, Munduko Bankuaren datuen arabera, Garapenerako Laguntza Ofizialaren % 40 arriskuan dago klima-aldaketaren ondorioengatik.

Zehazki, UNESCO Etxeak proposatzen du klima-aldaketaren aurkako euskal legeak ezaugarri hauek izatea:

- Legearen xedetza aipatzea maila globaleko klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzea, murrizketa- eta moldaketa-neurriak

bultzatuz EAEtik kanpora ere.

- Zehazki, Garapenerako Lankidetzaren sartzeari Legearen aplikazio-eremuaren barruan, eta herrialde pobretuetan ere ekintzak bultzatzea.
- Zehar-lerro moduan, murrizketa-helburuak txertatzea politika sektorialetan, ahaztu gabe kanpo-ekintzarako politikak eta, bereziki, garapenerako lankidetzakoak.
- GGM eta REDD mekanismoei buruzko erreferentziak sartzeari.
- Nazio Batuek martxan jarriak dituzten moldaketa-funtsetarako EAEren ekarpena arautzea, betiere euskal lankidetzak bere gain hartutako konpromisoez gain.
- Klima Aldaketari buruzko Euskal Agentzian parte-hartze publikoa eta gizarte zibileko eragileen parte-hartzea ziurtatzea, garapenerako lankidetzako eragileengandik hasita.

Azkenik, EAE mailan, Euskadi 2020ko Garapen Iraunkorrerako Estrategiak, 'Ecoeuskadi 2020' izenekoa eta 2011n onartuak,¹³ 9. helburuan aipatzen du «Euskadiren ekarpena milurteko helburuak bete daitezten eta, oro har, egoerarik ahulenean dauden herrialdeen garapen iraunkorrerako». Bertan adierazten duenez, problema global larriek –horien barruan sartzen du klima-aldaketa– «elkarri estu lotutako hiru prozesu eragiten dituzte: ahultasuna, desberdintasuna eta pobrezia». Erronka horiei Ipar-Hego ikuspuntu batetik ekiteko, bi jardueraren proposatzen ditu: 1) Hirugarren Munduko herrialdeak modu iraunkorrean gara daitezten aktiboki laguntzea, lankidetzaren proiektuen bidez 2) Garapen bidean dauden herrialdeetan merkataritza eta turismo arduratsuak bultzatzea.

Lurralde historikoetako hiru aldundiek, beren aldetik, garapenerako lankidetzako plan bat adostu zuten 2009-2011rako. Esparru teorikoan, klima-aldaketa gai funtsezkoa da –baina bakarra ez– iraunkortasunaren barruan: «garapen iraunkorrak esan nahi du hazkundera eta aurrerapena ezin direla mantendu natura-baliabideen

ustiatze sistematiko eta kontrolgabearen. Klima-aldaketa da, gaur egun, eredu horren ondorioen adibide on bat». Baieztapen biribil hori egin arren eta kontraesana badirudi ere, klima-aldaketa ez da agertzen planaren helburu orokorrean¹⁴, eta ez du gorputz hartzen praktikan. Era horretan, ingurumen-iraunkortasuna (eta klima-aldaketa) ez da lerro sektoriala¹⁵ ez zehar-lerroa, eta dimentsio pedagogikoaren azpiatal bat baino ez da (55. or.).

Aipatzekoa da 2011-2016rako Bizkaia 21 programak –bere helburua da Foru Sailei laguntzea beren jardueretan irizpideak txertatzen, lurraldea eta herritarrak iraunkortasunerantz joan daitezeko– kontuan hartzen duela garapenerako lankidetzak edo Ipar-Hego harremanak –politiken koherentzia-ikuspuntu global batetik (ikus izaera orokorreko 1.1.1 eta 1.1.2 puntuak)–, gutxienez helburu hauetan:

- **4.2.1 helburua:** Bidezko merkataritza gehiago zabaltzea.
- **10.1.1 helburua:** Garapenerako lankidetzako politikak eta konpromisoak hobetzea, pobrezia-aren eta desberdintasunen aurka borrokatzeko, eta herrialdeen arteko oreka ekonomikoa eta soziala sustatzeko.
- **10.1.2 helburua.** Iraunkortasuna eta politiken koherentzia txertatzea garapenerako lankidetzako gure jarduerak guztietan.
- **10.1.3 helburua.** Nazioartean lan egitea, beste herrialde batzuek ere beren gain har dezaten giza garapen iraunkorra.
- **10.3.2 helburua.** Zor ekologikoa eta kanpo-zorren barkamena lotzea, suspertzen ari diren herriei eta herrialdeei ‘amortizazio’ bat itzuliz, proiektu iraunkorren eran.

Genero-berdintasuna, klima-aldaketaren aurkako lankidetzan

Genero-desberdintasunak ezabatzea eta emakumeak ahaldundutzea txertatu behar dira nazioarteko erronka sozial handien artean, pobrezia ezabatzearen eta klima-aldaketaren aurkako borroka maila berean.

Pertsonen eta herrien artean ematen diren desberdintasun guztiek ahultasuna sortzen dute, ahul dagoena ingurumena hondatzeak dituen ondorioen mende dago eta, beraz, harreman argia dago desberdintasuna, pobrezia eta klima-aldaketaren artean.

Giza Garapen Iraunkor eta Bidezkoa paradigmak bere kezken erdi-erdian ditu, zein baino zein garrantzitsuago, pobrezia, bidezkotasuna eta ingurumen-iraunkortasuna. Paradigma hori erreferentziatzeko esparrua da nazioarteko lankidetzaren zatia, eta hala izan behar luke ere klima-aldaketaren ondorioei buruzko proiektuentzat eta Borondatezko Karbono Merkatuetan oinarritzen direnentzat.

Ekintza guztiek bideratuak joan behar dute desberdintasun guztiak maila berean tratatzen dituen garapen-eredu baterantz, ahultasun guztiei maila beretik ekiteko. Desberdintasuna eta ahultasuna sistemikoak dira eta, horregatik, estrategia integratuetatik ekin behar zaie.

Nazioarteko lankidetzak ongi ulertu du errealitate hori, uko egin dio ingurumen-problema eta genero-gabeziak bakoitza bere aldetik ikusteari, eta estrategia berean sartu ditu ingurumen-iraunkortasuna eta genero-berdintasuna.

¹³ Eusko Jaurlaritza (2011): Euskadiko garapen jasangarrirako estrategia 2020, Eusko Jaurlaritza, Ithobe, Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa, EcoEuskadi 2020ko Idazkaritza Teknikoa

¹⁴ «Pobretutako herriek eta komunitateek giza garapen iraunkorrera irits daitezela, oinarritzat harturik emakumeen eta gizonen berdintasuna eta giza eskubideen errespetua, Gida Plan honen helburu nagusia da garapenerako lankidetzak-politika koordinatu eta kalitatezko baten bidez lantzea pobrezia-aren aurkako borroka, genero-berdintasuna eta gizarte-kontzientzia kritikoa eta eraldatzaila».

¹⁵ Nolanahi ere, proiektuak puntuatzeko baremoan, I. tituluko ‘Natura-ingurumenaren babesa edo ingurumen-iraunkortasunaren gaineko eragina’ eta II. tituluko ‘Ingurumen-iraunkortasuna’ irizpideak sektorialak dira eta ez dira zehatzak. Hau da, eremu horretako proiektuei 3 puntu ematen zaizkie, eta beste guztiei batere ez. Ez da aintzat hartzen irizpidearen horizontaltasuna.

Generoaren eta iraunkortasunaren arloan, aurrerapenik handiena izan da garapen iraunkorraren alde lanean ari diren nazioarteko politiketan eta akordioetan genero-berdintasuna txertatzea.

Agenda 21ean berariaz emakumeei eskainitako kapitulu bat sartu izana (24. kap.) lehenbiziko urratsa da, zuzentasunaren ikuspuntua txertatzeko alde anitzeko ingurumen-akordioetan. Gaur egun, genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak sustatzen dituzten testuak daude ingurumenari buruzko Nazio Batuen hiru konbentzio garrantzitsutan: Biodibertsitateari buruzko Konbentzioa (CBD), Klima Aldaketari buruzko Konbentzio Esparrua (UNFCCC), Basamortutzeari buruzko Konbentzioa (UNCCD).

Estatu mailan, Espainiako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailean, Genero Garapenaren ikuspuntuak lehen tasun bikoitza du, batetik «lehen tasun horizontala» eta, bestetik, berariazko lehen tasun sektoriala.

Hor ikusten da zenbateko garrantzia ematen zaion genero-berdintasunari eta, gainera, Espainiako Lankidetzaren Genero Garapenaren Estrategia «funtsezko tresna da, gizonen eta emakumeen berdintasunerako legea behar bezala aplikatu dadin garapen-politiketan».

Asko geratzen da aurreratzeko, baina, ingurumen-iraunkortasunaren eta emakumeak ahalduzkoaren ikuspegi osoa osagarria eta zati-zatia izan dadin, hau da, benetan gizatiarra eta iraunkorra den garapen baten funtsezko osagaiak izan daitezkeen. Nolanahi ere, Espainiako Lankidetzaren genero-garapeneko politika sektorialaren helburu orokorra da «giza eskubideak oso-osorik baliatzen eta emakumeei herritartasuna lortzen laguntzea, ahalduzkoaren bidez»; beraz, badirudi –herritartasuna eta giza eskubideak oso-osorik baliatzea aipatzen direla ikusirik–, ekologia-iraunkortasunak eta genero-berdintasunak bat egiten dutela. Hala ere, estrategian aipatutako berariazko helburuak

sexu-eskubideez, bakea eraikitzeaz eta kultura-aniztasunaz ari dira, eta ez ekologia-iraunkortasunaz eta klima-aldaketaren aurkako borroka.

Halaber, Espainiako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzaileak ingurumen-iraunkortasunari buruzko helburu orokor bat txertatzen du: «natura-ondarearen kudeaketa iraunkorra izan dadin laguntzea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko garapen-ereduak bultzatzea», eta horrek aukera ematen du zehar-lerroko genero-berdintasunarekin bat egiteko, baina berariazko helburuetan ez zaio aipamenik egiten genero-berdintasunari.

Ondorioz, Espainiako lankidetzak bere gain hartzen du genero-ikuspegi eta ingurumen-iraunkortasuna zehar-lerrokoak izatearen garrantzia, eta hori lortzeko mekanismoak aurreikusten dira, baina ez da ikusten bi lerro horiek paraleloak direnik, eta emakumeen berariazko ahultasunak eta ahalduzko estrategiak txertatzen direnik ingurumen-iraunkortasunean, ez eta klima-aldaketari aurre egiteko estrategietan txertatzen direnik ere emakumeen interes estrategikoak eta sortutako baliabideak modu bidezkoan eskuratzea eta kontrolatzea.

Hala eta guztiz ere, garrantzia ematen ari zaio ikuspegi horrekin lan egiteari, zeren eta, SECIPI-ren iritziz (Espainiako lankidetzaren ingurumen-estrategia), bi erronka metodologiko daude:

- Proiektu bat Ingurumenaren Defentsa sektorean txertatu ahal izateko baldintzak finkatzea.
- Sektorearen barruan onartzea, modu osoan eta organikoan, beste bi lehen tasun horizontalak: Pobreziaren aurkako Borroka eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Sustapena. (Ibidem: 32).

EAEn, Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaile eta Estrategikoak (2008-2011) lehen tasuna ematen dio genero-berdintasunari, lau zehar-lerroetako bat da, eta ekologia-iraunkortasuna ere bai (to-

kiko gaitasunak eta giza eskubideak dira beste biak). Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzatik bultzatutako lankidetzak-ekimen guztiek genero-berdintasuna eta iraunkortasuna txertatu behar dituztela.

Horretaz gainera, emakumeak ahalduntzea da lerro sektorialetako bat, eta berariazko helburu hori duten ekintzak lehenesten dira (Plan berriaren zirriborroan, ekologia-iraunkortasuna ere lerro sektorialtzat hartzeko aukera aipatzen da). Era horretan, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak-politikak lehenetsi egiten du ikuspegi horiek ekintzetan txertatzea, baina ez du ikuspegi edo

tresna zehatzik garatzen biak modu 'artikulatuan' biltzeko.

Hiru foru-aldundien artean egindako Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailean (2009-2011), genero-berdintasuna zehar-ardatza da, baina ardatz horretan soilik sartzen dira emakumeen eskubide ekonomikoak, sozialak ('garapen iraunkorra' aipatzen da bertan), kulturalak, zibilak eta politikoak, sexualak eta birproduktiboak. Kasu horretan ere, beraz, genero-berdintasuna eta ingurumen-iraunkortasuna lehenesten dira, baina ez da estrategiarik garatzen horiek ezinbesteko osagai izan daitezkeen garapen-estrategia alternatibo berean.



03

Borondatezko
karbono-merkatuen
azterketa eta kontrastea



Kiotoko Protokoloa eta haren Malgutasun Mekanismoen barruko Garapen Garbirako Mekanismoak (GGM) daude Karbono Merkatuaren jatorrian. Horri esker, legez isurpenak murriztu beharrik ez duten entitateek proiektuen bidez konpentsa ditzakete. Proiektu horiek, GGMen lerro nagusiak jarraituz, desberdinak dira: gizarte- edo genero-ikuspegi handiagoa izan dezakete, eta proiektu bat sisteman sartzeko kostu txikiagoa.

Ezbairik gabe, Kiotoko Protokoloaren malgutasun-mekanismoetan sartutako karbono-merkatuak eztabaida-iturri dira. Gero eta iritzi desberdin gehiago daude klima-aldaketaren murrizketa finantzatzeko moduei buruz, bereziki merkatu-mekanismoei buruz, batzuk alde (adibidez, Paul Krugman-en artikulua, 'Nola eraiki ekonomia 'berde' bat'¹⁶) eta besteak aurka (adibidez, Herrien Akordioa, Klima Aldaketari eta Ama Lurraren Eskubideei buruzko Herrien Mundu Biltzarraren barruan¹⁷). Esate baterako, lan-proposamen horrek denetariko iritziak sortu ditu GGKE parte-hartzaileen artean: GGKE batzuen-

tzat positiboa da eta aplikatzea planteatzen dute amaitzera doazen proiektu pilotu batzuen etorkizuneko proiektuetan, eta beste GGKE batzuek baztertu egiten dute planteamendu teorikoa edota praktikoa.

Nolanahi ere, proiektua hasi zenean, isurpenak konpentsatzeko tresna eta borondatezko karbono-merkatua erabat edo oso ezezaguna zen elkarte-entzat eta instituzioentzat, Euskadin nahiz estatuan. Proiektu horri esker, eztabaida piztu da tresna hori aplikatzeak garapenerako lankidetzan sortzen dituen erronkei buruz eta, are gehiago, orain sakanago hausnartzen da garapenerako lankidetzatik klima-aldaketaren aurka borroka egiteari buruz.

Borondatezko Karbono Merkatuen aukerak eta arriskuak

Ondoren, eta euskal lankidetzako eragileen saio parte-hartzaileak eta galdetegiak oinarritzat harturik, hona hemen Borondatezko Karbono Merkatuen (aurrerantzean, BKM) aukera eta arrisku nagusiak:

¹⁶ 'Cómo construir una economía verde'. Paul Krugman. 2010/04/25. http://www.elpais.com/articulo/primer/plano/construir/economia/verde/elpepueconeg/20100425elpneglse_2/Tes

¹⁷ Klima Aldaketari eta Ama Lurrari buruzko Herrien Mundu Biltzarra. Apirilak 22, Cochabamba, Bolivia. Herrien Akordioa. [http://derechosmadretierra.org/2010/04/26/conferencia-mundial-de-los-pueblos-sobre-el-cambio-climatico-y-los-derechos-de-la-madre-tierra-2//](http://derechosmadretierra.org/2010/04/26/conferencia-mundial-de-los-pueblos-sobre-el-cambio-climatico-y-los-derechos-de-la-madre-tierra-2/)

BKMen aukerak:

- Tresna berria dira, finantza-iturri eta -bidea garapenerako lankidetzaz, erakunde eta komunitateentzat.
- Iparretik Hegora teknologia garbiak eramateko bidea ematen du.
- Beste politika askoren mekanismo osagarria izan daiteke, bai eta interes operatibokoa ere garapenerako lankidetzarentzat, lan-prozesu integralen baitan.
- BKMa baliagarria izan daiteke estrategia global baterako tresna gisa (baina ez bera helburu gisa).
- Zona edo estai ekologiko batzuek ematen dituzten ingurumen-zerbitzuak balioztatzen laguntzen dute, jabeek diru-sarrera osagarriak jaso ditzaten haiek zaintzearen truke.
- Kontzientziatzeko balio dute, eta hori, aldi berean, egitura-aldaketarako oinarria da.
- Ildo horretan, herri-administrazioen barruan, baliagarriak dira sailetik kanpora sentibilizatzeko eta gastuak konpentsatzeko. Adibidez, ingurumen-sailerantz urrats bat egiteko balio du.
- Zehatz jokatzeke balio dute, eta hori aprobetxa daiteke benetako ekintzak egiteko, eta gizartean eta ingurumenean inpaktu handia duten ekimenak aurrera eramateko.
- Inpaktu positiboa sortzera irits daitezke.
- Klima-aldaketaren aurkako borrokan erantzunkidetasuna bultzatzen dute.
- Tokian-tokian planteatzen den eskaera bati erantzuten diote.
- Legediari ez itxaroteko eta enpresa boluntarioekin lan egiteko bidea ematen dute.
- Klima-aldaketari buruzko eztabaida sortzeko bidea ematen dute GKEetan eta administrazioetan.
- Gaur egun, Kiotoko protokoloa da legez loteslea den tresna bakarra, herrialde garatuak berotegi-efektuko gasen isurpenak murrizteko. Beraz, lan egin behar dugu hori hobetzeko, bere edukia eta akordioak betetze etikoa hobetzeko.
- Borondatezko merkatuak bereizketa lana egiteko balio dezake, eta eska dezake, denekin batera, konpentsazioen bidez garapen-helburuak lor daitezela derrigorrezko merkatuan, erantzukizunei ihes egitea soila izan gabe.
- BKMen sorrera 'herrikoida' aukera bat izan daiteke emakumeak ahalduzkoaren ikuspegia sartzeko, proiektuetan genero-harremanen ikuspegi eraldatzaile bat txertatuz.
- Aukera bat izan daitezke emakumeen bizibaldintzak hobetzeko proiektuak bultzatzeko, eta haien ahalduzkoa indartzeko.
- Aukera ona izan daitezke gizonek eta emakumeek sortutako baliabideak eskura jartzeko eta haien gaineko kontrol bidezkoa edukitzeko.

BKMen arriskuak:

- Ez dute errotik mozten problema nagusia: masa-produkzioaren eta -kontsumoaren paradigma.
- Dinamika horretan, modelo zaharrak betikotzen dituzte eta, azkenean, lpar aberatsak CO₂ gehiago kontsumitzeko bidea da, Hegoaren bizkar.
- Ez dira sistema benetan aldatzeko tresna, baizik eta adabaki hutsa.
- Ez dute aldaketaren ikuspegi integralik.
- Natura merkatuan sartzea da: preziorik jarri al dakioko bazkide-ekosistemari?
- Egungo merkatu-mekanismoak zitalak dira, pobrezia gehiago eragiten baitute.
- BK Mak deskonektaturik aztertu/erabili ohi dira beren helburutik (berotegi-efektuko gasak murriztea): halakoetan bitartekoak eta helburuak nahasi, eta horren emaitza izan daiteke merkatu espekulatzailerik soil bat sortzea.
- Ez dira aski herritarrak etorkizunerako prestatzeko.
- Eta, batez ere, ez zaio ekiten lan nagusiari: lparreko murrizketa. Konpentsazioak inoiz ez dira benetakoak.
- Aurpegia garbitze hutsa izan daiteke enpresentzat eta erakundeentzat.
- Gainera, geuk hemen aplikatzen ez ditugun ereduak esportatu nahi ditugu.
- % 0,7an sartzeko arriskua (iturri gehigarria izan behar du), eta, beraz, lankidetzaren funtsak murrizteko eta desbideratzeko arriskua. Araudi-falta.
- Publikoak eta demokratikoak ez diren instituzioek funtsak kudeatzea.
- Konturik eman beharrik ez eta kontrol gutxi.
- Herritar onuradunen inplikaziorik ez egotea.
- Lehendik dakiguna ez baliatzea (generoa, giza eskubideak)
- REDD ere merkatuaren mekanismo bat gehiago bihurtzea.
- Sustatutako ekintzak gizonen 'produktio'-beharretara bideratzea, emakumeen interes estrategikoak aintzat hartu gabe eta, beraz, desberdintasunari eustea.



BKMa garapenerako lankidetzako proiektuetan sartzeko perspektibak

Euskal lankidetzan sartu aurretik, horren atzean eta azpian dauden eztabaidak planteatu behar dira:

- **BKMak desiragarriak diren:**
 - Politikoa eta teknikoa bereiztea, eta batik bat politikoa jorratzea eztabaida kolektiboaren bidez, ondoren arazo teknikoak eta proiektu pilotu posibleak aztertzeko.
 - Araudiaren eta merkatuaren arteko lehenetasunak edo artikulazio-aukerak finkatzea.
 - Natura merkatuan sartzaren aukerez eta mugez gogoeta egitea.
 - BKMei buruzko gogoeta sartzeari aldaketaren sistemikoaren ikuspegi global batean.
 - Lankidetzaren eragileek beren erakundeetan baitan eztabaidatu behar dute BKMak garatu nahi dituzten, edo beste lantresna batzuk nahiago dituzten.
- **Gogoeta egitea lankidetzaren/antilankidetzaren¹⁸:**
 - Derrigorrezko merkatua eta BKMa bereiztea: Egia den arren derrigorrezko merkatuak botere gehiago ematen diela multinazionaleri, zati txikiak (BKM) legitimatzen al du osotasuna (derrigorrezkoa)? Esparru horretan, BKMek ba al dute maniobra-marjinarik?
 - Herrialdeek, gobernuak eta botere publikoek antilankidetzaren egitea eta, hala ere, lankidetzaren egitea jarraitzen dugu. Gauza bera gerta al daiteke merkatuekin eta, kasu honetan, BKMekin?
 - Ba al da kasurik BKMak lankidetzaren

eta antilankidetzaren tresnak izatea eta ez izatea?

- Enpresen gizarte-erantzukizunari eta legegidiarekiko harremanari buruzko eztabaida argitzea.
- REDD+ dela eta beharrezko eztabaida bat dago, BKMei buruzko eztabaidaren antzekoa. Zer ote da: aukera ala merkatuaren Troiako zaldia?
- Eztabaida horretan, gogoratu beharra dago ez dagoela kooperazio mundu bat baizik eta kooperazioaren munduak (zein bere ikuspegi politikoekin, ideologikoekin, estrategiak, praktikak, etab.). Beraz, ezin da multzo homogeneotzat hartu eta baliteke azkenean estrategia desberdinak egotea, eta BKMa bezalako tresna beraren ulerpen eta erabilera desberdinak.
- Oro har, lankidetzaren eragile publikoek eta pribatuek gogoeta egin eta eztabaidatu behar dute zer tresna diren eraginkorrenak klima-aldaketaren aurka; zer tresna den koherentea GGKE bakoitzaren politikekin eta laneko planekin eta, beraz, badago zer proposatua eta eztabaidatua GGKEentzat eta gainerako lankidetzaren eragileentzat, batez ere tokiko instituzioentzat eta euskal herri-administrazioentzat.

Gainera, gogoratu beharra dago BKMa tresna (posible) bat besterik ez dela klima-aldaketaren aurkako borrokan, eta hori, bere aldetik, ekologia-iraunkortasunaren zutabe bat besterik ez dela. Hortaz, honako hauek dira garapenerako lankidetzan sartu beharreko lehenetasunak:

- Ipar Globalean jatorrizko isurpenak murriztea, funtsezko estrategia gisa. Berez, egiturazko problema mundial bat dago –garapen okerraren eredu–, eta problemaren erroetara joan behar da, batez ere Iparrera, geu

¹⁸ Antilankidetzaren da Iparrean eta Iparretik egiten den edozein jardueraren, Hegoarentzat zuzeneko edo zeharkako ondorio kaltegarriak dituen, eta batik bat multinazionalen eta Estatuak sustatua.

baikara egungo klima-aldaketaren erantzule historikoak. Isurpenen konpentsazioa ez dago ulertzerik ez bada aurrez murrizketa-ahaleginik egiten, bai eta gogoeta eta erreakzio bat ere, gizartearen eta pertsonen produkzio/birprodukzio ereduaren eta kontsumo-ohituren aurrean.

- Era berean, GGKEek eta garapenerako lankidetzak beren jarduera-printzipio nagusiak erabili ahal eta behar dituzte (giza eskubideak, zuzentasuna, demokrazia, parte-hartzea...), tresna erabili nahi duten edo ez erabakitzeko, betiere konpentsazioa azken urratsa dela bultzatuz, murrizketaren ondoren (ikusi 1. irudia).
- Ekologia-iraunkortasuna lantzea zehar-lerro moduan eta modu sektorialean, euskal lankidetzaren barruan.
- GGKEek eta instituzioek koherentzia eta antilankidetzak elkarrekin lantzea, murrizketa eta moldaketa lortzeko.
- Ildo horretan, administrazioko sailen eta instituzioen arteko politikak koherenteak izatea ezinbestekoa da, sail batek egina bestek desegin ez dezan.
- Zuzenean lan egitea emakumeak ahalduntzearen eta generoa zehar-lerrokoa izatearen alde, MEDetik pasatu gabe (Emakumeak Garapenean).
- **Oso garrantzitsua da:**
 - eragina, eta planeta suntsitzen duten eragileak seinalatzea.
 - Iparra nahiz Hegoa sensibiltzatzea.
- **Hain zuzen ere, BKM izeneko tresna dela eta:**
 - 'Isurpenen konpentsazio-funts bakar' bat sortzeko aukera, lankidetzan diharduten enpresentzat eta instituzioentzat.
- Administrazioek ziurtatu behar dute funts gehigarriak erabiltzea, Garapenerako Laguntza Ofizialetik ateratakoak ez direnak. Berez, funtsen jatorria dela eta, Garapenerako Laguntza Ofizialen helburua ez da nahasi behar isurpenak konpentsatzearen helburuarekin. Iparreko herrialdeek urteroko finantzaketa berri baten konpromisoa hartu behar dute, Garapenerako Laguntza Ofizialaz (GLZ) gain eta iturri publikokoa, eta konpentsazioek GLZren funtsak osatu behar dituzte.
- Gizarte- eta genero-estandarren derri-gorrezko definizioa, erabili ahal izateko.
- Erabiliak badira, kredituak saltzearen irabaziek eragin zuzena izan behar lukete herrialde pobretuetako komunitateen giza garapen iraunkorrean, kultura-, ekonomia- eta gizarte-balioak errespetatzen dituzten ekintzak martxan jarritz gutxitu ahal izateko, nola edo hala, berotze globalak leku horietan dituen ondorio larriak.
- Klima-aldaketari aurre egiteko gainerako neurrietatik isolatuz gero, karbono-merkatuek ez dute balio klima-aldaketaren aurka, ez badira sartzen hierarkia eta lehenetsun batzuen barruan, gutxitzeko (jatorrian murrizteko) eta moldatzeko (bidegabeki kaltetutako Hegoako herrialdeek parte-hartze aktiboa dutelarik).

¹⁹ El enfoque MED (Mujeres en el Desarrollo) hace referencia a la visión de la Cooperación Internacional que se limita a incorporar a las mujeres al modelo de desarrollo preexistente, que sigue teniendo a los hombres como modelo de referencia. Los proyectos planteados desde este enfoque no cuestionan la desigualdad entre mujeres y hombres, ni los roles tradicionales de género. En contraposición al MED se trabaja desde el enfoque GED (Género en el Desarrollo) que integra las necesidades prácticas de las mujeres, pero también sus intereses estratégicos, cuestiona las relaciones de poder entre mujeres y hombres, y la división sexista del trabajo y fomenta el empoderamiento de las mujeres.



1. irudia: Berotegi-efektuko gasak murrizteko hierarkia eta lehentasunak, hondakinen hierarkiaren ispilu (prebenitzea, berreraikuntza, birziklatzea, balioztatzea, ezabatzea), baliagarria baita gizabanako, erakunde eta herrialdeentzat. Iturria: Marcellesi F., Pérez Dueñas, L. (2010): 'Pensar antes de compensar. Pequeña guía para el mercado voluntario de emisiones', hemen: Ecología política, 39. zk.

Borondatezko Karbono Merkatuak erabiltzeko jardura-protokoloa

Entitate publikoek edo pribatuek garapenerako lankidetzara aplikatu ahal izan dezaten, 'Garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologikorako gida praktikoa' (Bakeaz, 2012) delakoan oinarritu eta jardura-protokolo bat proposatu dugu:

- GKE edo instituzio batek bi eratan har dezake parte borondatezko CO₂ merkatuetan:
- Berotegi-efektuko bere gasak konpentsatzea, borondatezko karbono-merkatuaren Ipar-Hego proiektuen bidez.
 - Zuzenean Ipar-Hego proiektuak garatzea borondatezko merkatuan, pertsona edo enti-


tate pribatuen edo publikoen konpentsazioak jasoz.

Bi lan-ildo horietarako irizpide minimo batzuk proposatzen dira, honako galdera hauen inguruan:

- Nire GKE edo entitatea ados al dago garapen garbirako mekanismoen eta borondatezko merkatuen planteamendu teoriko eta ideologikoarekin? Erantzuna baiezkoa bada, jarraitu hurrengo galderekin eta, ezezkoa bada, utzi ideia bertan behera.
- Nire isurpenak konpentsatuz gero:**
 - Borondatezko konpentsaziotik datorren adina diru inbertitu al dezaket zuzenean klima-aldaketa gutxitzeko edo hartara moldatzeko proiektuetan?
 - Gardentasunez ezagutzen al dut zer nolako proiektuak finantzatzen diren nire

konpentsazioekin?

- Ba al dakit konpentsazioko zenbat diru erabiltzen den Hegoko proiektua garatzeko, eta zenbat joaten den administrazio-kostuetan (gehiegi bada, negatiboa da)?
- Nire konpentsazioak funts publiko batera doaz ala kredituak sortzen dituzte merkatuan?
- **Proiektu bat aurrera eramanez gero:**
 - Konpentsazioa lotzen al dut berotegi-efektuko gasak murrizteko plan batekin entitate konpentsatzailean?
 - Saihesten al dut antikonpentsazioak jasotzea, hau da, beren jarduerengatik klima-aldaketari eta zuzentasunari kalte egiten dioten entitateen edo pertsonen konpentsazioak jasotzea?²⁰
- **Kasu bietan:**
 - Finantzatutako proiektua borondatezko konpentsazioen onurei esker egin da (positiboa), ala bestela ere egingo zen (negatiboa)?
 - Sortutako funtsak Garapenerako Laguntza Ofizialetik apartekoak dira?
 - Zein eremu geografikotan egiten da proiektua? (herrialde pobretuak lehenestea, suspertzen ari diren herrialdeen aurretik).
 - Finantzatutako proiektuek laguntzen al diete tokiko komunitateei, eta txertatzen al dituzte iraunkortasuna, parte-hartzea, generoa eta giza eskubideak?
 - Proiektuak jartzen al du zalantza emakumeen desberdintasuna eta lanaren banaketa sexista, sustatzen al du emakumeak ahalduntzea eta sortutako baliabideen eskuragarritasuna eta kontrola bidezkoa izatea emakume eta gizon guzientzat?



²⁰ Tailer batean parte hartu zuen pertsona batek aipatu bezala: «GKE batek konpentsazioen dirua jasoz gero, ez da berdina Petronorretik edo gizarte-enpresa batetik jasotzea».

04

Genero-berdintasuna, ezinbestekoa iraunkortasunerako

«Ekomendekoak gara: natura ez da baliabide bat,
bizirik jarraitzeko behar dugun ingurune bat da»
(Amaia Pérez de Orozco)



Garapen-eredu berri bat, lankidetzaren-eredu berri bat

Klima-aldaketa eta ingurumenaren suntsipen progresiboa ez dira prozesu natural bat. Ez da halakorik gertatzen bizitzeko, produzitzeko eta kontsumitzeko eredu zentzuzkoa denean, naturarekin elkarrekiko harremana dagoenean. Gure zibilizazioaren produkzio- eta kontsumo-sistemaren eta bizimoduaren ustez, natura amaigabeko baliabideen hornitzaile agortezina da, eta gure jabetzakoa da.

Gizakiok ez gara ohartzen osagai bat gehiago garenik natura-baliabideak eta gainerako espezieak bizi-ziklo beraren barruan dauden ingurune batean, piramide baten gailurrean ipini gara eta handik erabiltzen ditugu gainerako espezieak eta natura osoa, geure zerbitzura dauden produktuak balira bezala; era horretan, natura da kontsumitzeko erabiltzen dugun 'supermerkatua', eta gure hondakinak itzultzen ditugun 'zabortegia'. Natura-baliabideak eta naturaren hondakinak xurgatzeko ahalmena mugagabeak balira bezala produzitzen eta kontsumitzen dugu.

Baina, nagusi jarri garen arren eta espezie guztiak geure mende bizi diren arren, ezin izan gara jarri gure bizi-ereduaren erdian.

Produkzio-sistema kapitalista hasi zenetik, baina batik bat globalizazio neoliberalaz geroztik, pertsonok ez gara sistemaren erdiko lehentasuna. Sistemaren erdian merkatua dago. Eta produzitzeko eta kontsumitzeko ahalmenaren arabera balioztatzen dira pertsonak.

Produzitzeko eta –beraz– kontsumitzeko ahal-

menaren araberrako balioa dugun eredu horretan, homo economicusen bertsio berri bat sortu da: izaki autonomoa, bere nortasuna enpleguaren bidez eraikitzen duena, zainketarik behar ez duena eta inor zaintzeko erantzukizunik ez duena. Eta izaki hori, balego, gizaki heldua eta osasuntsua litzateke, familia-erantzukizunik gabea.

Baina ez dago halako gizakirik. Zenbait pertsona iristen diren egoera da –seguru asko, gizonezkoak–, baina zenbait pertsonak –seguru asko, emakumeek– zaindu dute –eta zaintzen jarraituko dute– bizitza osoan. Lan ikusezina izango da, ordaindu gabekoa, eta «beren bete-beharra» delakoan egingo dute.

Gure gizarteak garapen-eredu horren gainean dauden eraikiak: ekonomiak eta gizarteak balioa ematen die ondasunak produzitzeko eta kontsumitzeko lanei, eta ekonomiak eta gizarteak ikusezin bihurtzen ditu bizitza birproduzitzeko ezinbestekoak diren lanak. Munduko gizarte guztietan, emakumeen arduraren dira birprodukzio-lanak (haurrak, gaixoak eta zaharrak zaintzea; janaria prestatzea, etxea zaintzea, etab.). Horrela, gizon helduak eta enplegudunak dira 'balio' gehien dutenak, eta haien 'zerbitzura' daude zaintzeko gai diren pertsonak (emakumeak). Mendeko pertsonak (haurrak, gaixoak, zaharrak, elbarriak) ikusezin bihurtzen dira, eta batzuetan ez dira agertzen garapenaren azterketan.

Garapenaren ikuspegi horren gainean eraiki dugu azken hamarkadetakoa nazioarteko lankidetzaren. Kontsumo-ondasunak produzitzeko baliabiderik eza giza premietan lehena delakoan, produkzio-ondasunak eta kontsumo-gaitasuna sortzen saiatu gara, eta garapen-eredu hori 'es-

portatu' dugu Iparreko herrialdeetatik herrialde pobretuetara, arretarik eskaini gabe funtsezkoak diren bi alderdiri:

- ekintza zehatzen eta haien azpiko garapenereduaren ekologia-iraunkortasuna
- lankidetzak ekimenen barruan sortutako baliabideen eskuragarritasuna eta kontrola bidezko-tasunez birbanatzea emakumeen eta gizonen artean.

Biziaren iraunkortasuna: garapeneraren esanahi berria, ekologia-iraunkortasunetik eta genero-berdintasunetik

Lankidetzak-proiektuetan ekologia-iraunkortasuna eta genero-berdintasuna neurtzen duten –eta minimoak bermatzen dituzten– aldagai puntualak sartu nahi izateak 'arrakasta' izateko aukera gutxi du, guretzat 'arrakasta' bada estrategia proaktiboak garatzea, konformatzen ez direnak ingurumena ez kaltetzen eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ez areagotzen, baizik eta egiturazko eta epe luzerako aldaketak sartu nahi dituztenak. Eta egiturazkoak eta epe luzera emankorrak diren aldaketak egon daitezzen, Ekofeminismoak proposatzen duen paradigma berria onartu behar da: biziaren iraunkortasuna.

Kontzeptu hori definitzea zaila da, eraikin ideologiko konplexua baita, baina paradigma eraikitzen lagundu duten intelektual baten definizioa har dezakegun, Amaia Pérez de Orozcorena²¹: biziaren iraunkortasuna da «bizitzea merezi duten biziak birsortzeko prozesuak erdi-erdian jartzea».

Lanaren banaketa sexistaren testuinguruan, non emakumeek beren gain hartzen dituzten ia

zainketa-lan guztiak (bizitza birproduzitzea) eta gizonek ondasunen produkzioa (lan produktiboa), lan birproduktiboak ez dira ordaintzen ez ikusten, 'ez-produktibotzat' hartzen dira eta, al-diz, etxetik kanpora egindako lanak ordainduak dira (dirutan edo gauzatan), ikusgarriagoak dira eta ezinbesteko irizten zaie. Zeharka baina ezinbestean, lanaren banaketa horrek pertsonak kategorizatzen ditu: produktiboak (gizonak) eta ez-produktiboak (emakumeak), horrek dituen ondorio politikoekin.

Garapenerako lankidetzak eredu horretan parte hartu eta elikatu egin du, hamarkada askotako ahalegina izan baita kontsumo-ahalmen handiagoa sortzen duten ondasunen produkzioa bultzatzea, familiak baliabideak birbanatzeko guretzat hartuta, baina 'familia buruaren' premiak bakarrik hartu izan dira kontuan: ia beti gizon heldua, produkzio-lana egiten duena eta bere familiako kide batzuk dituen (emakumeak, seguru asko) bera eta bere familiako pertsona gehiago zaintzen. Familia hartu izan da baliabideak modu bidezkoan birbanatzeko guretzat, lan produktiboa/birproduktiboa emakumeen/gizonen artean banatzea 'agindu' batetik datorrelakoan, zalantzan jarri gabe.

Emakumeentzako diru-sarrerak sortzea aurrerikusi duten proiektu bakarrek diru-sarrera osagarritzat hartu dute, familia-ekonomiaren 'laguntzatzat', 'merkatua' oso aintzat hartu gabe eta emakumeen lan 'borondatezkoarekin' kontatuz, beren denbora 'librean' egina. Horrela, oso proiektu gutxi sortu dituzte benetako diru-sarrerak emakumeentzat, gutxi hartu dituztelako benetan 'produktibotzat'.

Beraz, azken hamarkadetan bultzatutako garapenerako lankidetzako ekintza askok garapeneredu bat globalizatzen lagundu dute, hau da,

²¹ Pérez de Orozco, A. Biziaren iraunkortasuna. V. Topaketa Feministen barruko hitzaldia, Bilgune Feminista. Leiza, 2012 <http://www.youtube.com/watch?v=Cf1YZnMv4i8>

kontsumo-gaitasunak sortzen eta genero-rol tradizionalak betiketzen. Horregatik, bultzatu den eredia ez da iraunkorra ekologikoki, eta ez da bidezkoa baliabideak banatzeko orduan emakumeen eta gizonen artean.

Puntu horretan hartzen du zentzua garapenerako lankidetzan txertatzeak biziaren iraunkortasuna, hau da, Vandana Shiva-k dioen bezala²², «antolaketa sozial, politiko eta ekonomikoaren erdian bizia jartzea. Emakumeek jada egiten dute, beren gain utzi direlako zainketa-lanak eta biziari eustea. Dirua egitea gizadiaren helburu berria da, baina biziaren aberastasuna maximizatzea izan da gizarte guztien helburu nagusia, historian zehar».

'Bizia erdigunean', kooperazio-proiektuetan

Giza Garapenaren paradigmatik, 90eko hamarkadan, garapenaren ikuspegi berri bat aldarrikatzen zuen: ekonomia-hazkundearen garapenaren helburu eta neurri izateari utzi, eta pertsonen bizi-kalitateari buruzko aldagaiak sartu zituen garapen desiragarrian, baina sistemaren egitura zalantzan ipini gabe; aitzitik, biziaren iraunkortasunaren paradigmatik azterketaren aldaketa sistemikoa planteatzen du, baina ekintzarena ere bai.

Paradigma horretan biltzen dira Feminismoaren eta Ekologiaren aldarrikapenak, proposamenak eta azterketa, eta planteatzen dute ikuspegiz aldatzea eta pertsonen bizia jartzea gure zibilizazioaren erdian eta, beraz, politika publiko guztien (baita lankidetzaren politiken ere) helburu nagusian.

Proposamen horren arabera, pertsonak zain-

tzarekin eta bizia birproduzitzearekin lotutako lan guztiei eman behar zaie ikusgarritasun eta balio berria, bai eta banaketa berria ere. Yayo Herrero dioen bezala²³: «gizakiaren bizitza zaintzea eta gizarte birproduzitzeko lanak ezinbestekoak dira eta ezin dira egin gabe utzi». Horrek ez du esan nahi emakumeek soilik egin behar dituztenik. Premiazkoa da gizonen –estatuek eta merkatuek ez ezik–, beren gain hartzea lan horien erantzunkidetasuna.

Biziaren iraunkortasunaren planteamenduak bi oinarri ditu:

- Ekomendekoak garela onartzea: Natura hornitzaile agorrezintzat hartu ordez (horren ondorio zuzena da klima-aldaketa), ekologia-iraunkortasuna bizirik jarraitzeko ezinbesteko baldintzat hartzen da, baina arazo politikotzat ere bai. Ekologiak gainditu egin behar du ingurumenarekiko errespetua, eta egiturazko aldaketa proposatzen du eredu makroekonomikoarentzat, bai eta bakoitzaren eta gizartearen bizi-ohiturentzat ere, 'ongi bizitzea' izan dadin 'bizitzea merezi duen bizia'.²⁴
- Elkarren mendekoak garela onartzea: Sistema neoliberalak izaki autonomotzat hartzen ditu izakiak, eta ondasunen produkzioa lan nagusitzat, baina horren aurrean planteatzen da pertsona guztiok behar izan dugula, behar dugula eta beharko dugula nork zaindua bizitzan zehar, aitorpen soziala ematen zaie zainketa-lanei eta haiek egiten dituztenei, lehentasunen erdian jartzen dira bizitza birproduzitzeko lanei, eta alboratu egiten da ondasunen produkzioa.

Era horretan, onartzen badugu biziaren iraunkor-

²² Shiva, V., hemen: Giddens eta Hutton, argit., El mundo en el límite: la vida en el capitalismo global. Tusquets, Bartzelona: 2001

²³ Herrero, Y. Elkarriketa, Ruth Vicentek egina Ecopoliticarako, 2010eko ekaina. www.ecopolitica.org

²⁴ Pérez de Orozco, A. Biziaren iraunkortasuna. V. Topaketa Feministen barruko hitzaldia, Bilgune Feminista. Leiza, 2012 <http://www.youtube.com/watch?v=Cf1YZnMv4i8>

tasunaren paradigmak benetan modu iraultzailean txertatzen dituela ekologia-iraunkortasuna eta genero-berdintasuna lankidetzaren ekimenetan, eta esanahi berria ematen diola garapenari, orduan, lankidetzaren ekimen guztiek bilatu behar lukete pertsonen bizia erdigunean jartzea, orain nagusi den sistema ez-iraunkorra eta ez-bidezkoa zalantzan jartzea eta, beraz:

- **Giza Garapenaren esparrua gaintu** eta ardatza 'bizi-kalitate' 'ongi bizitzera' pasatzen da, hau da, pertsonen bizimodua markatzen duten osagaiak ez dute loturarik produkzio- eta kontsumo-gaitasunarekin, baizik eta 'bizitzea merezi duen' bizitza bat izateko aukerarekin eta ahalmenarekin.
- **Lehenetsitako premiak birdefinitzen dira.** Giza Garapenaren paradigmaren premia lehenetsiei erantzun beharra planteatzen zen, emakumeen eta gizonen interes estrategikoak azpimarratuz, baina biziaren iraunkortasunak planteatzen du pertsona guztien premia guztiak maila berean daukela (Max Neef-en premiei jarraituz²⁵), beste gu zaintzeko beharra eta guk besteak zaintzeko erantzukizuna dugulakoan.
- **Naturaren premiak sartzen dira lehenetsien artean. Ekomendekoak** garelako onartu ondoren, natura-ingurunea ere lankidetzaren eragileztat hartu behar dugu, eta 'bere' premiak lehenetsi behar ditugu garatzera goazen estrategien barruan. Horrek esanahi du ingurumena baliabide-hornitzaileztat hartzei utzi eta gure bizitzarako eta datozen belaunaldien bizitzarako osagai funtsezkotzat hartzea, oraingo ereduak –eritmo honetan– ez baitu bermatzen haren biziraupena.
- **Izaki ahulak** eta, beraz, **elkarren mendeak garelako oharra.** Lankidetzaren ekimenak ahultasun nabarmenean dauden pertsonen zuzenduak izaten dira, baina

ahultasun horiek sistemikoak dira, hau da, globalizatutako sistema ekonomikoak eta politikoak eraiki ditu. Ikuspegi horren arabera, denok berdinak gara, baina sistemak eragiten digun moduak desberdintzen gaitu. Dena dela, denok gara ahulak, denok behar baitugu nori zaindua bizitzan zehar. Era horretan, berdinen arteko harremana da lankidetzaren. Izan ere, Amaia Pérez Orozco dioen bezala, «ahultasunari aurre egiteko modu bakarra elkarrekiko harremana da. Bizitzak berezkoak ditu elkarrekiko mendetasuna eta ekomendetasuna».

- **Gizon heldu, autonomo eta soldatadunak erreferentzia izateari uzten dio.** Homo economicus ez da teoria ekonomiko klasikoaren eredu bat besterik, baina «gizon heldu osasuntsu ez-mendeko eta produktiborik» ez dago eta –batez ere–, ez du erreferentzia izateko balio garapenerako lankidetzaren. Orain nagusi den garapeneredu ez-iraunkorra eta ez-bidezkoa eraldatuko duten lankidetzaren ekimenak planteatu ahal izateko, ezinbestekoa da ulertzea lankidetzaren ekimenetako subjektua emakumez eta gizonez osatua dagoela, bizitzaren etapa desberdinetan daudela, eta pertsona guztiek berez duten ahultasunari gehitzen zaiola pobrezia ahultasuna, eta –seguru asko– badituztela ahultasun gehiago ere.
- **'Familia' ez da lankidetzaren ekimenen subjektua.** Lanaren banaketa sexistan (produktiboa: gizonak/birproduktiboa: emakumeak) familia ezinbesteko esparrua da; bertan, gizonen erantzukizuna da familiako kide guztientzako adina kontsumo-ondasun produzitzea, eta emakumeen erantzukizuna da kide guztiak zaintzea. Baina baliabideen eta laneko denboraren banaketa (autonomian gauzatzen da) eta aitoren banaketa (erabakiak hartzeko gaitasunean gauzatzen da) ez dira zuzenak, gizonei mesede

²⁵ Max-Neef, M. A. Desarrollo a escala humana: Conceptos, aplicaciones y algunas reflexiones, ICARIA, Barcelona, 1993

egiten die, eta kalte, aldiz, emakumeei eta familiako beste kide 'ez-produktibo' (zaharrak, gaixoak eta haurrak). Paradigma berriak pertsona bakoitza bere garapenaren subjektu bihurtzen du (eta, beraz, lankidetzaproiektuen subjektu) eta –batik bat– pertsona guztien elkarrekiko mendetasuna azpimarratzen du, hau da, denok maila berean gaude autonomiari eta erabakiak hartzeari dagokionez.

- **Balio berria ematen zaie zainketa-lanei:** dimentsio berria ematen zaio denborari, kargari eta garrantziari. Zainketa-lanak kontuan hartzen dira proiektuak identifikatzean, gauzatzean eta lankidetzakimenean inpaktu ebaluatzean. Lan 'produktibo' maila berean balioztatzen dira, programazioan txertatzen dira denboraren banaketa errealista batetik, eta ekintzak planifikatzen dira hain garestiak izan ez daitezen, zuzen bana daitezen eta baliabide produktibotzat 'baliozta' daitezen.
- **Zainketa-lanak birbanatu eta gizonak erantzule egiten dira.** Lanaren banaketa sexista zalantzan jartzea lehenetsi behar da proiektu guztietan, batik bat diru-sarrerak edo kontsumo-ondasunak sortzen dituztenean. Proiektu askok, gizonen ahalmen produktiboa indartzearen truke, are gehiago kargatzen dute emakumeen gaitasun birproduktiboa. Hori zalantzan jarri beharra dago eta, jarduera 'produktiboak' lehenetsiz gero, gizonak kontzientziatu beharra dago (baina emakumeak ere bai) ezin diotela ihes egin beren burua eta aldamenekoak zaintzeko erantzukizunari, berek aurrera egiteko ezinbestekoa dela zaintzaileen lana, eta emakumeek 'betebehar' birproduktiboengatik dituztela muga 'produktiboak'.
- **'Produktiboa' zeri esaten zaion berrikus-tea.** Lehenbailehen jarri behar da zalantzan 'produktiboa' 'baliagarriarekin' lotzea, eta hori kontsumo-ondasunak sortzen dituen bakarrik dela pentsatzea. Baliabideak sortzen dituen 'baliagarritzat' hartzea eta

pertsonen bizitza mantentzeko lanak alboratzeak birproduktioaren (bizitzaren) aurretik jartzen du produkzioa, pertsonen aurretik jartzen du merkatua, eta horrek hazkunde ez-iraunkorra eta baliabideen banaketa ez-zuzena dakar, hau da, klima-aldaketa, pobrezia eta desberdintasuna.

- **Esanahi berria ematen zaio 'onura' kontzeptuari.** «Egiten edo jasotzen den ondasuna» esan nahi duen arren, ikuspegi kapitalista eman diogu, eta lankidetzakimenean 'onuragarria' irizten diogu baliabideak sortzeari, prozesuak eta emaitzak ingurumenean izan dezaketen ondorioak aztertu eta zalantzan jarri gabe, ez eta baliabide horien gaineko eskuragarritasuna eta kontrola zuzen banatuta ote dauden ere emakumeen eta gizonen artean, batez ere egoerarik ahulenean daudenean artean. Benetan 'onuragarriak' diren lankidetzakimena bultzatu behar dira, pertsonen bizia hobetzeko garapen-ereduak sor ditzaten, ingurunearekin harmonian.
- **Lanen baliagarritasuna eta beharra berrikusten da:** Lehenbiziko urratsa da lana eta enplegua identifikatzeari uztea. Gizartean eta ingurumenean 'onura' sortzen duten lan guztiak hartu behar dira lantzat, eta hala balioztatu behar dira. Era berean, 'enplegu' askok ez dute gizarte- edo ingurumen-onurarik sortzen, eta horiek ezabatzen joan behar genuke. Lan birproduktiboek bizia duintasunez mantentzearen onura dakarte eta erdigunean egon behar dute; aldiz, 'bizitza merezi duen' bizia ez dakarren edo 'iraunkorrak' ez diren ondasunen produkzioa baztertu edo alboratu egin behar da, behintzat lankidetzapolitikatik.
- **Garapen endogenoa bultzatzen da, produkzio eta kontsumo alternatiboen ereduetan oinarritua.** Hots, zalantzan jartzen da garapen objektiboaren kontzeptua bera, pertzepzio subjektiboa, indibiduala eta kolektiboa delakoan, 'ongi bizitzearen' aldagaietan oinarritua, betiere beste pertsonekin

eta ingurunearekin orekan. Amaia Pérez Orozcoren hitzetan, «ez dago kontraesanik 'ongi bizitzeko' helburuaren eta iraunkortasunaren artean. Ongi bizitzea posible egiten duten baldintzei eustea da helburua, eta ez hobeto bizitzea (lehen baino hobeto, besteak baino hobeto)». Era horretan, garapen-eredu berriak sustatzen dira, pertsonen eta herrien desberdintasunak errespetatzen dituztenak, lekuan lekuko natura-ingurunearekin lotuak, oinarritzat harturik elikadura-burujabetza, zuzentasuna, jardunbide iraunkorrak eta, funtsean, mendekoak garen ideia: beste pertsonen eta naturaren mendekoak.

Biziaren iraunkortasuna birproduzitzea euskal lankidetzan

Planteamendu horiek lankidetzaren ekimenetan txertatzea zaila da, batez ere praktikan aplikatzeko orduan. Baina ez da ezinezkoa.

Ekologia-iraunkortasuna eta genero-berdintasuna maila berean jartzen dituen ikuspegi batetik, garapenerako lankidetzak hiru 'problema' nagusi hauek jorratzen ditu: pobrezia, klima-aldaketa eta desberdintasuna.

Sarritan, garapenerako lankidetzak jardun du errealitate horietako bakoitza 'bere aldetik' balioa bezala, eta horiei aurre egiteko estrategiak ere horrela joan ahal balira bezala. Hamarkada askotako garapenerako lankidetzaren ondoren eta proiektuen inpaktuak neurtu ondoren, baina, lankidetzako eragile guztien ondorioa da asko 'sektorializatutako' ekintzak ez direla iraunkorrak eta ez dutela sortzen benetako inpaktu positiborik. Eta are gutxiago egituraren aldaketarik.

Era horretan, instituzioek plangintza estrategikoen prozesuei ekin diete, eta bultzatu nahi duten lankidetzaren lehentasunak bildu dituzte, irizpide geografiko eta sektorialekin. Ahultasunak elkarri loturik daudelakoan, eta


'espezializatuegiak' ez diren lankidetzaren ekimenak sustatzearen sortzen dira zehar-lerroak, proiektu guztiek ondorioak izan ditzaten lehenetsitako eremu guztietan, edozein sektorekoak izanik ere. Horregatik, instituzioek proposatutako zehar-lerroak aipatutako hiru ahultasunei buruzkoak direla (pobrezia, klima-aldaketa eta desberdintasuna).

Euskal instituzio guztiek planteatzen dute genero-berdintasuna, ekologia-iraunkortasuna eta egiturazko pobrezia zehar-lerrokoak direla beren lankidetzaren plan eta -politiketan, eta ezin dugu ukatu horrek ondorioak izan dituela proiektuen inpaktuan eta horiek kudeatzen dituzten erakundeetan:

- Ikuspegi integralagoa eman zaie ekintza guztiei, eta ez dira planifikatzen ez laguntzen sektore bakarrari heltzen dioten proiektuak, kontuan hartzen ez dituztenak herritarren beste ahultasunak.
- Ekintzek gehiago heldu diete ahultasunen arrazoiei, eta ez hainbeste ondorioak murrizteari. Lankidetzaren proiektuak nabarmen garatu dira azken hamarkadetan, eta ahalmenak sortzea eta ekintza iraunkorrak egitea bilatu dute, egoeraren 'aringarri' izatea alde batera utzita.
- Diziplina anitzeko ekipoak eta profilak sortu dira, eta lankidetzaren 'espezializazioak' prestakuntza edo kontzientzia esan nahi du egiturazko pobrezian, klima-aldaketan eta genero-berdintasunean.

Era berean, lankidetzaren proiektuen kudeatzaile nagusi diren GGKEek egitura osoaren ikuspegi berri bat hartu dute, ahultasunaren arrazoiei 'eraso' eta modu integralean egiten dute lan, ahultasunak, generoa eta klima-aldaketa lotuz.

Hein batean, jauzi kualitatibo hori planteamendu 'politikoa' da, ikuspegi kritikoa da, zalantzan jartzen du globalizazioa, eta Hegoko bizimoduaren erantzule egiten du Iparreko bizimodua. Bestal-



de, instituzioek markatutako lerroak ere aldaketa horren motorra izan dira; izan ere, pixkanaka, 'egitura osoaren' ikuspegia ez duten proiektuak eta zehar-lerroak txertatzen ez dituztenak baztertuz joan dira deialdietatik, eta are gehiago baztertuko dira.

Baina ikuspegi horrek ahalegin handiak eskatzen ditu (ekipoen prestakuntzan baliabideak inbertitzea, kanpo-kontratazioak, plangintza-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesu konplexuak, proiektuen dokumentazio konplexua), eta inpaktua ez da beti proportzionala. Horrela, kasu askotan, lankidetzaren proiektu baten plangintza- eta kudeaketa-prozesua oso konplexua da eta, ondorioz, helburuak diluitu egin daitezke, edo zehar-lerroak oztopo izan daitezke helburu sektorialak lortzeko. Eta, puntu horretan, zentzua hartzen du paradigma aldatzeak eta biziaren iraunkortasuna 'zehar-lerroko' bihurtzeak.

Ez gara planteatzen ari egiturazko pobrezia, klima-aldaketa eta genero-berdintasuna txertatu behar direnik lankidetzaren ekimen guztien garapen-ereduan. Gure planteamendua da fokuz aldatzea eta esanahi berria ematea garapenari eta, bide batez, lankidetzari ere bai.

Instituzioek, gizarte-mugimenduek eta GGKEek garapen-paradigma berri bati heldu behar genioke, ekomendeko eta elkarren mendeko garaia onartu, eta ikuspegi horrekin lan egin.

Horrela, klima-aldaketaren aurka lan egiten duen proiektu batek genero-berdintasunerako estrategia bat ere izan behar luke, eta alderantziz, bi estrategiek ahultasun berari erantzuten diotelako: bizitza erdi-erdian jartzen ez duen sistema bati.

Horrek ondorio zehatz batzuk ditu, atal honetan aipatu ditugunez gain:

- Lankidetzaren proiektu guztiek zalantza jarri behar dute ez-iraunkorra eta ez-bidezkoa



den sistema. Beraz, lankidetzaren proiektu guztien 'helburu nagusiak' izan behar luke globalizatutako sistema neoliberalak zalantzan jartzea, eta horrek ondorioak ditu proiektuak planifikatzen eta kudeatzen diren moduan, inplikaturako erakundearen errealitatean eta funtzionamenduan, estrategia eta ekintza zehatzen hautaketan eta GGKEen eta instituzioen eguneroko jardunean.

- Klima-aldaketaren aurkako eta genero-berdintasunaren aldeko borroka ez dira proiektu sektorial jakin batzuen helburuak, eta eragina dute erakundearen eta instituzioen errealitatean. Premiazkoa da erakundearen eta instituzioen eguneroko jarduna aldatzea, erantzukizun indibidualak eta kolektiboak onartuz, modu indibidualan eta kolektiboan elikatzen baitugu ez-iraunkorra eta ez-bidezkoa den ereduak.
- Garapenerako Hezkuntzako eta sentsibilizaziozko proiektuak funtsezkoak dira, gizarte-erakundearen zeregin nagusietako bat izan behar baitu herritarren artean kontzientzia kritikoa sortzea egungo ereduak kliman eta generoan dituen ondorioez.
- GGKEen erantzukizuna da eragin politikoa, beren lan funtsezkoetako bat baita instituzioei politika proaktiboak aplikaraztea klima-aldaketaren ondorioak gutxitu ditzaten, bai eta eredu ez-iraunkor eta ez-bidezko hori betikotzen duten jardunbideak ezaba ditzaten ere.
- Instituzioen erantzukizuna da koherentzia. Klima-aldaketaren eta desberdintasunaren aurkako politika sektorialak aplikatzeaz gain, politika koherenteak planifikatu behar dituzte eremu guztietan, instituzio guztietako sail guztiek bultzatzen dezaten bizia erdi-erdian jartzen duen garapen-eredua.

05

Klima-aldaketa
lankidetzan txertatzea



Klima-aldaketa garapenerako lankidetzan txertatzeko orduan, ikuspegi estrategikoak epe luzerakoa izan behar du, ondoren helburu hori lortzeko neurriak eta ekimenak finka daitezzen.

Esparru horretan, proiektu pilotuetan eta prozesu parte-hartzailean aritu diren eragileek gogoeta egin dute eszenatoki desiragarriak eta estrategiak eraikitzeaz, helburu hauekin:

- Garapenerako lankidetzaren klima-aldaketaren aurka borrokatzeko tresna izatea.
- Klima-aldaketa behar bezala sartzeko garapenerako lankidetzako tresnen artean.
- Emakumeak ahalduz eta biziaren iraunkortasuna erdi-erdian jartzea.

Horretarako, etorkizuneko eszenatoki (edo EASW) batean oinarritutako metodologia erabili da, honako helburu hauekin:

1. Egoera desiragarri baten epe ertain-luzeko ikuspegi partekatu bat, alderdi positiboak sartuz, baina negatiboak eta oztopoak ere bai.
2. Esparru bateratu horretan oinarriturik, proposamen-zerrenda bat egiten da, ikuspegiaren alderdi positiboak lortzeko eta alderdi negatiboak saihesteko edo konpontzeko.

Gogorarazi beharra dago garapenerako lankidetzaren txertaturik dagoela klima-aldaketaren aurkako borrokaren nazioarteko helburu instituzional minimoen artean, eta helburu horiek are handiagoak izan daitezke, erakundearen politikaren arabera:

Mundu osoan:

- a) 1990en aldean % 5,2 murriztea, 2008-2012 artean;
- b) % 25-40 murriztea herrialde industrializatuetan, hots, batez besteko tenperatura 2 gradu baino gutxiago igotzea, industriaurreko mailaren aldean (Cancun, 2010).
- c) 2050erako, % 50eko murrizketa globala, Iparrereko herrialdeetan % 90ekoa.


Europan: 2012an % 8ko murrizketa eta 2020an % 20koa, 1990en aldean.

Espanian: 2012an % 15eko gorakada, 1990en aldean.

Eszenatoki desiragarri eta posible bat eraikitzea 2030ean

Lan hau egiteko, etorkizun posibleen eszenatokitza hartu ditugu Milurteko Ekosistemen Ebaluazioan oinarrituak (Nazio Batuek, 2005), eta, gainera, prozesu honetara moldatu ditugu, batik batik klima-aldaketaren aurkako borrokaren ikuspegitik. Ondorioak gorabehera, Nazio Batuen eszenatoki horiek oso baliagarriak izan daitezke lankidetzaren eragileentzat, beren politikak diseinatzeko eta beren ekimenak sartu ahal izateko jardueraren esparru globalago eta epe luzeko batean.





2. irudia

Milurteko Ekosistemen Ebaluazioaren agertokiak

MEk lau agertoki garatu zituen ekosistemen eta gizakiaren ongizatearen etorkizuna ikertzeko. Agertokiek munduko bi garapen-bide ikertzen dituzte (eskualdeetako ekonomiak eta gizarteak versus mundu mailakoak); eta bi ikuspegi desberdin ekosistemen erabilerarako (erreaktiboa eta proaktiboa). Erabilera erreaktiboa, arazoei begi-bistakoak direnean soilik egiten zaie aurre; erabilera proaktiboko saiakerak, ordea, ekosistemaren zerbitzuak denbora luzez mantentzea dute helburu. Agertoki horiek munduko gizartearen kontraste-trantsizioak 2050. urtera arte ikertzeko aukeratu ziren.

Eszenatoki horietan oinarriturik, eszenatoki desiragarriak eta posibleak eraikitzen dira. Adibidez, euskal GKEetako lan-taldeek eraikitako eszenatokiak biltzen ditugu²⁶:

Parte-hartzea eta ekonomia berria:

Munduaren eredu honetan, botere politikoa eta ekonomikoa gizarte zibilaren kontrolpean dago, eta hura arduratzen da aldaketa-prozesuez. Tokiko produkzioaren eta kontsumoaren arabera antolatu da ekonomia, diruzkoak ez diren jardunbideak ere sartzen dira, eta lanaren banaketa sexista gaindituta dago. Gizarte horretan, energia-kontsumoaren eredu berriak berdintasun handiagoa sor dezake Iparraren eta Hegoaren artean.

Biozentrismoa:

Gizarteek tokian tokiko kontsumo- eta produkzio-sistema bat dute, baina legedi globalak ikuspegi biozentrikoa du, eta baliabideen eta boterearen banaketa zuzena bermatzen du. Eszenatoki horretan ziurtzat jotzen da emakumeen eta gizonen berdintasunaren zeharlerrokotasuna.

Eskualde-aniztasun aktiboa:

Herritar proaktiboak: aldaketa-eragilea (emakume +).

Estatu burujabeagoak: itunak, eskualde-egiturak.

Ekonomia: globalizazio gutxiago, eskualdeko merkatuak.

Klima-aldaketa/Ingurumen-kudeaketa zeharlerrokoa da, derrigorrezkoa.

Proposamen desberdin horiek aurkeztu ostean, adostasun bat lortu da eszenatoki desiragarri

eta posiblearen ezaugarri nagusiei buruz:

- Gizarte zibila eta herritarrak arduratsuak eta aktiboak.
- Emakumeak aldaketa-eragile.
- Ekonomiaren eta merkatuen birkokapena.
- Aldi berean, eskualdearen garrantzi handiagoa.
- Merkatuarekiko mendekotasun txikiagoa.
- Produkzio-kontsumo pentsaeraren eta ereduaren aldaketa, iraunkorra, biozentrikoa eta Ipar-Hego artean bidezkoagoa den baterantz.

Eszenatoki desiragarri eta posiblea hartzeko estrategiak

Epe luzeko ikuspegi horretan oinarriturik, gogoeta egiten da ea Garapenerako Lankidetzatik zer estrategia, neurri, mekanismo edo faktore zuzentzaile zehatz abiaraz daitezkeen eszenatoki desiragarri orokorrera iristeko, eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko.

Eremu sektoriala

Prozesuaren eta azterketaren ondorio argietako bat, ekologia-iraunkortasuna 'eremu sektorial' bihurtu beharra da. Ondoren, eremu horren baitan, azpi-lehentasanak finkatu beharko dira (gaiaren arabera, hala nola, klima-aldaketa, ura, hondakinak edo gorabeheren aurreko eskuhartzea).

Adibidez, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko berariazko sektore bat sortuz gero iraunkortasuna sektorialaren barruan (ez eremu sektorial burujabe moduan), ikuspegi hau izan lezake:

- Klima-aldaketara moldatzea azpimarratzea, adibidez tokian tokiko proiektuen bidez, jar-

²⁶ Proiektutik kanpoko arrazoiengatik, ezin izan da ariketa bera egin herri-administrazioekin.

dunbide egokien berri ematea, teknologia-esperimentazioa eta -berrikuntza bideratzen duten lankidetzaren tresnak, Iparreko hezkuntza, produkzio- eta kontsumo-prozesuak birkokatzea, etab.

- Klima-aldaketaren aurkako borrokan sartzea prebentzioa, ingurumen-hezkuntza, gizarte- eta ingurumen-gatazkak (egiturazko arrazoiak berrikusteko), natura-baliabideen kudeaketa eta gobernantza modu bidezkoa.

Azkenik, eztabaida bat sortu berri da eta seguru asko indarra hartuko du datozen urteotan, lankidetzaren munduan: ingurumena giza eskubidea da (antropozentrismoa) ala naturak baditu bere eskubideak (biozentrismoa)? Nola konbinatu bi kontzeptuok, eta zer eragin izango luke legedian eta proiektuetan?

Zehar-lerroko gaiak

Eszenatoki desiragarria heldu ahal izateko, sektorial bihurtzeaz gain, iraunkortasunak zehar-lerrokoa ere izan behar du, hau da, garapenerako lankidetzaren jardura guztietan txertatu behar da. Kasu horretan, faktore kritikoa izango litzateke programa edo jardura bat onartzeko, gaur egun genero-ikuspegia den bezala. Zehar-lerrokotasun hori esparru estrategiko baten barruan bistaratu eta ulertu behar da, eta batez ere epe luzera begira.

Iraunkortasunaren zehar-lerrokotasunerantz joateko, eraldaketa horizontalaren estrategia moduan oso interesgarria izan daiteke metodologiak partekatzea (genero-berdintasuna, prozesu parte-hartzaileak, ahalduntzea, ekimen positiboak), beste dinamiketarik eta haien arrakasta eta oztopoetatik ikasten joateko.

Esku-hartzeko gaiak

Iraunkortasunaren eremuetan, eszenatoki desiragarria heltzeko hainbat gai daude lankidetzaren barruan:

- Elikadura-burujabetza zeharkako ardatza izatea Hegoan (landari lotuagoak diren produkzio-proiektuak) eta Iparrean (eragina, hezkuntza, etab.).
- Gizarte zibil globalaren papera eta herritargo global baten eraikuntza, eragile eraldatzaile gisa.
- Ingurumen-justizia lehenestea, hau da, gizaki guztiok eskubide berak izatea planetaren ingurumen- eta kultura-onurak eskuratzeko eta haiez gozatzeko.
- Iparrean egiturazko aldaketa (hezkuntzaren bidezko aldaketa nabarmenak kontsumoan, garraioan, energian, elikaduran, parte-hartzean, etab.), eta desazkundearen garrantzia.

Aldaketa sistemiko horretara iristeko, Iparreko hezkuntza eta eragina lehenesten dituzte, argi eta garbi, lankidetzaren-eragileek.

Politiketan ez ezik, koherentzia egon behar du GKEen esku-hartzeetan. Sektoreen arteko elkarrizketa hobetu behar da eta, batik bat, sareko lana eta itun zabalak eraikuntza erraztu.

Iraunkorragoa eta politikoagoa izan behar duela formulatu izan den arren, gutxi landu da ekintza humanitarioaren arloa eta, ez bairik gabe, berariazko gogoeta eskatzen du.

Eremu geografikoak

Lehen aipatu bezala, partekatutako lehentasun bat dago: koherentziagatik eta gizartearen eraldatzeko, Euskadin behar-beharrezkoak dira garapen-hezkuntza, sentsibilizazioa eta eragina. Beraz, Iparreko herrialdeak garapenerako lankidetzaren jomuga dira, Hegoan ez baita giza garapen iraunkorrik egongo, ez badago egiturazko aldaketarik Iparrean.

Hegoko esku-hartzei dagokionez, ildo hauek aipatzen dira:

- Eremu geografiko bakoitzaren berezitasunak aintzat hartzea, dimentsio globala eta epe luzekoa galdu gabe.

- Klima-aldaketaren (eta zor ekologikoaren) inpaktuak bistaratzea, eremu geografikoen arabera.
- Klima-aldaketari begira, ea klima-aldaketa-ira moldatzeko laguntza behar duten herrialdeak bat datozen Plan Zuzentzaileen edo GGKEen lehentasun geografikoekin.
- Arreta berezia eskaintzea zonalderik ahu-lenei: Afrika (arrisku handiko zonaldea) eta Latinoamerika (hondamendi naturalak, hirien erroka, etab.).
- Klima-aldaketaren aurka eta ingurumen-justiziaren alde borrokatzeko beste ikuspegi eta jarduera batzuk bistaratzea.

Legedia

Iraunkortasuna txertatzeko orduan, kontuan izan behar da egungo legedia oso zurruna dela. Arriskua dago GKEen berrikuntza-aukerak itozteko, proiektuak homogeneousatze edo ustez ematen zaien osotasunik ez egotea ondorengo emaitzetan eta inpaktuetan. Izan ere, GGKEei nekea metatu zaie, nazioarteko gobernu-erakundeek ezarritako lehentasunei 'erantzun' behar dietelako, beren esparruan ez direnean lehentasuntzat hartzen eta instituzio horiek markatutako ildoak (edo eskainitako tresnei) jarraitu behar dietenean.

Gure proposamena da, beraz, araudia malgutzeko beharraz eta aukeraz gogoeta egitea (adibidez, Plan zuzentzaileak sinplifikatuz), klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta iraunkortasunarekin lotutako gaiei buruzko berrikuntza, ikerketa eta hedapena errazteko.

Adibidez:

- Proiektuek klima-aldaketaren aurkako borrokari zehar-lerro moduan ekiteko baremoak bultzatzea, baina ez dadila izan, besterik gabe, lehendik dauden baldintzei gehitutako beste bat.
- Gai horiekin diharduten entitate batzuekin

esparru-akordioak egitea –prozesu-ikuspegiarekin lan egiteko eta haien jarraipen egokia egiteko–, eta jardunbide egokiak sustatzea eta jakinaraztea.

- Halaber, herri-administrazioentzat beharrezkoa da GKEek adieraztea zein ingurumen-gai lehenesten diren beren lankidetzestrategietan, bai eta aldaketa zehatzak proposatzea ere, agian lankidetzaren Plan Zuzentzailean sartzeko, edo diru-laguntzen dekretuetan, edo legedia malgutu dezaketen beste tresnetan.

Prestakuntza

Prozesu guztian azpimarratu da klima-aldaketari eta ekologia-iraunkortasunari buruzko prestatuntzarik eta informaziorik eza. Adibidez, klima-aldaketa, garapena eta pobrezia buruzko jakintza-maila ertaina-apala da, Garapen Garbirako Mekanismoak buruzko jakintza-maila apala-nulua eta Borondatzeko Karbono Merkaturak buruzko jakintza-maila apala-nulua. Gainera, ingurumenean prestatutako pertsonal gutxi dago, Iparreko erakundeetan nahiz Hego-ekideetan.

Beraz, eszenatoki desiragarria heltzekotan, ezinbestekoa da prestatuntza eta informazioa ematea gai hauen inguruan:

- XXI. mendeko erroka ekologikoei buruzko oinarri teoriko minimoak, eta Ipar-Hego herriekin duten elkarrekiko mendetasuna.
- Proiektu-zikloaren plangintza- eta kudeaketa-tresnak, iraunkortasunaren ikuspegitik.
- Garapenerako lankidetzan iraunkortasuna txertatzeko tresnak, adibidez, ingurumen-impaktuaren ebaluazioak eta haien jarraipen-mekanismoak.
- Ikerketa/sistematizazio/zabalkunde prozesuak bi aldean artean.
- Gida metodologikoak edota jarduera egokiak gidak sortzea:
 - Lan-ildo horretan esperientzia duten

administrazioen artean.

- GKE eta instituzioentzat, tresna praktikoak izan ditzaten (adibidez, 'Garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologikorako gida praktikoa', Bakeaz, 2012, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Garapenaren aldeko Euskal Agentziak finantzatua).
- Iraunkortasunean prestatutako teknika-ri publikoen eta pribatuen lan-poltsa, erakundeen arteko baliabideak eta jakintzak partekatzeko.

Gaur egun, bestalde, GKEen ekipo teknikoak batez ere lankidetzaz-masterrez daude osatuta, eta beren curriculumak joera akademiko, soziologiko eta politiko handia du. Beraz, horrek eskatzen du, batetik, prestakuntza arautuan argi eta sendo sartu behar direla klima-aldaketaren eta iraunkortasunaren gaiak eta, bestetik, lankidetzaz-eragileen profila indartu behar dela etengabeko prestakuntzaren bidez, ingurumenaren ikuspegitik.

Era berean, garrantzitsua da administrazioko sailak eta eskumenak desektorializatzea, politiken artean sinergia eta koherentzia gehiago sortzeko. Alde batetik, iraunkortasunean prestatutako pertsonala egon ohi denez ingurumen-sailetan, modu sistematizatuan (ez puntualean soilik) sustatu behar da elkarlana eta zehar-lana ingurumen-sailen eta garapenerako lankidetzazko sailen artean. Bestalde, legedi mailan, lankidetzaz-sailek prestakuntza egokia eduki behar dute ingurumen arloan (adibidez, klima-aldaketaren aurkako tresnetan, euskal eta foru mailan), eta ingurumen-sailek lankidetzaren arloan. Urrats horrek asko erraz dezake ingurumen-gaiak lankidetzaz-araudietan zeharka txertatzen, eta alderantziz, hainbeste bilatzen den politiken koherentziaren mesedetan. Adibidez, oso interesgarria da administrazioek lankidetzaz aintzakotzat hartzea beren garapen iraunkorrerako plan integraletan (Arabian edo Bizkaian bezala).

GKEen barne-kultura eta politika instituzionalak:

- Klima-aldaketaren aurkako borrokari buruzko barne-prestakuntza eta sentsibilizazioa, erakundearen egunero aplikatzeko.
- Tamainaren arabera, herri-administrazioak bezalako erakundeek berotegi-efektuko gasen isurpenak murrizteko barne-politika bat izan behar lukete.
- Erakunde baten barne-funtzionamenduari dagokionez, murrizketak lor daitezke energia-kontsumoan, mugikortasun-politikan, jangeletako elikaduran, etab.
- Bulegoetan ezartzeko neurri zehatzen dekalogo bat ere idatz daiteke, edo proiektuetan kontrolatu beharreko arazoaren dekalogo bat.

Genero-berdintasunaren ikuspegia ematea

Etorkizun ideal batean ziurtzat ematen den emakumeen eta gizonen berdintasuna aukeratarra eta baliabideetara iristeko orduan, ingurumen-iraunkortasunaren ikuspegian genero-berdintasuna zehar-lerrotzat har daitekeen bezala, baina, gure ustez, kontu batzuk zehaztu beharra dago, ingurumen-iraunkortasunak eta klima-aldaketaren aurkako borroka benetako eragina izan dezaten aukeren berdintasunean eta emakumeak ahalduntzean:

- Itunak egin behar dira gizarte-mugimendu ekologistarekin eta feministarekin, artikulazioa egon dadin ikuspegi tekniko batetik lan egiten duten eta ikuspegi politiko batetik lan egiten duten erakundearen artean, aldaketa sistemikoaren benetako estrategiak sortu ahal izateko.
- Elikadura-burujabetza planteatu behar da, hau da, baliabideen birbanaketa esplizitua, baina boterearena ere bai, emakumeen eta gizonen artean, eta lanaren banaketa sexista zalantzan jarri. Produzitzeko eta



kontsumitzeko modu berri bat proposatzen du elikadura-burujabetzak, eta ekintza zehatzak dituzten proiektuak planteatu behar ditugu, produkzio- eta kontsumo-moduek berma dezaten emakumeek gizonek adinako aukera dituztela, eta emakumeei ahalduz lagun diezaieten. Arlo horretan, eragin zehatza egin daiteke lurren titulartasunean, etxeko lanen erantzunkidetasunean, landako emakumeen lana bistaratzeko edo erabakiak hartzeko gune komunitarioetan.

- Ekimen positiboak abiarazi behar dira, herritartasun globala errealitate izan dadin emakumeentzat ere. Gure ikuspegian sartuta egon behar du emakumeek ez daukatela eduki behar luketen presentzia eta eragina, ezta gizarte-mugimenduetan ere, eta ahalegin gehiago egin behar direla emakumeak iritsi ezin diren herritartasunaz baliatu ahal izan daitezela.
- Ingurumen-justiziak bidezkoa izan behar

duela planteatzea. Ingurumen-justiziaren kontzeptuak inplizitua du emakumeen eta gizonen berdintasuna, baina –hori eraginkorra izan dadin– bi errealitate onartu behar dira:

- emakumeek, munduko alderdi guztietan, 'genero'-zailtasunak ditugu gure eskubideez baliatzeko eta planetako ingurumen- eta kultura- onuretara iristeko (eta kontrolatzeko).
- ingurumen-justizia bilatzen duten ekimen guztiek estrategia zehatzak txertatu behar dituzte, emakumeek aukera berdinekin eskuratu ahal izan ditzaten proiektuetatik sortutako 'onurak'.
- Iparrean eta Hegoan aurreikusten diren egitura-, ohitura- eta kontzientzia-aldaketa guztiek eragina izan behar dute lanen eta erantzukizunen banaketan, eremu pribatuan nahiz produktiboan, eta zalantzan jarri behar dira emakumeek posizio desberdinean egoteko arrazoiak.

eranskiina

Klima-aldaketaren kronologia nazioartean:

1972: Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Biltzarra Stockholmen.

1979: Klimari buruzko Lehen Mundu Biltzarra, Geneva, Meteorologiaren Mundu Erakundeak antolatua.

1983: Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Batzordea sortu zen (CNUMAD).

1987: Montrealgo Protokoloa, ozono-geruza mehetzea eragiten duten gasak murrizteari buruzkoa.

1987: Brundtland Txostenaren argitalpena ('Gure etorkizun komuna').

1988: Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea (IPCC, ingelesez) sortu zuen Meteorologiaren Mundu Erakundeak eta Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Programak (INBP).

1990: IPCCren lehen txostena.

1992: Lurrari buruzko Rio de Janeiroko Goi Bilerara eta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzio Esparrua.

1995: IPCCren bigarren txostena.

1997: Kiotoko Protokoloaren onarpena. Garapen Garbirako Mekanismoak sartu ziren 12. artikuluan.

2001: IPCCren hirugarren txostena.

2002: Garapen iraunkorrari buruzko Goi Bilera, Johannesburgen.

2005: Kiotoko Protokoloa indarrean sartu zen, berotegi-efektuko gasen % 55 isurtzen duten 55 herrialdek berretsi ondoren.

2007: IPCCren laugarren txostena.

2007: Baliko Biltzarra (COP13). REDD mekanismoari buruzko negoziazioen hasiera.

2009: Kopenhageko Goi Bilera (COP15).


2010: Cancungo Goi Bilera (COP16). REDD+ sartu zen azken akordioaren C kapituluan.

2011: Durbango Goi Bilera (COP17).

2013/14: IPCCren bosgarren txostena (prestatzen).

Bibliografía

- Bakeaz (2012), Guía práctica para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo, Bakeaz y Agencia Vasca de Cooperación al desarrollo.
- CMMAD (Comisión Mundial del Medio Ambiente y del Desarrollo) (1988), Nuestro futuro común (Informe Brundtland), Madrid, Alianza Editorial.
- Evaluación de los ecosistemas del milenio (2005), Evaluación de los Ecosistemas del Milenio. Informe de síntesis, Washington, D. C., Island Press.
- Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco (2008a), Plan Estratégico y Director de la Cooperación para el Desarrollo 2008-2011.
- Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco (2008b), Plan Vasco de Lucha contra el Cambio Climático 2008-2012
- Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco (2011), Estrategia de desarrollo sostenible de Euskadi 2020, Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, Ihobe, Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Secretaría Técnica EcoEuskadi 2020
- Herrero, Y. (2010), Entrevista Realizada por Ruth Vicente para Ecopolítica, junio 2010. www.ecopolitica.org
- Marcellesi, Florent, e Igone Palacios (2008), Integración de consideraciones de sostenibilidad en la cooperación para el desarrollo, Bilbao, Bakeaz (Cuadernos Bakeaz, 88).
- Marcellesi F., Pérez Dueñas, L. (2010), Pensar antes de compensar. Pequeña guía para el mercado voluntario de emisiones, en Ecología política, nº39.
- Marcellesi, F. (2012), Cooperación para el posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de cooperación al desarrollo, Bakeaz
- Max-Neef, M A (1993), Desarrollo a escala humana: Conceptos, aplicaciones y algunas reflexiones, ICARIA, Barcelona.
- OCDE (2010), Integración de la Adaptación en la Cooperación para el Desarrollo: Guía sobre Políticas, OCDE.
- Pérez de Orozco, A. (2012), La Sostenibilidad de la vida. Conferencia en el marco de los V Encuentros Feministas, Bilgune Feminista. Leiza, <http://www.youtube.com/watch?v=Cf1YZnMv4i8>
- PNUD (2007), La lucha contra el cambio climático: Solidaridad frente a un mundo dividido. Informe desarrollo humano PNUD.
- Secretaría de Estado para la Cooperación Internacional y para Iberoamérica (2002), Estrategia de la cooperación española en medio ambiente 2001-2004, Madrid, Ministerio de Asuntos Exteriores.
- Secretaría de Estado para la Cooperación Internacional (2009), Estrategia de Medio Ambiente y Desarrollo Sostenible de la Cooperación Española, Madrid, Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación.
- Shiva, V. en Giddens y Hutton, eds. (2001), El mundo en el límite: la vida en el capitalismo global. Tusquets, Barcelona.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

